

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

## 3492

*AGINDUA, 2020ko abuztuaren 25ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira, 2020ko ekitaldirako, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapeneko Programaren esparruan onartu ziren Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak.*

Nekazaritza-politika bateratua berritu egin da, Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) finantza-kerari, kudeaketari eta jarraipenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1306/2013 (EB) Erregelamenduaren bidez. Landa-garapenaren eremuan –NPB-ren bigarren euskarria–, erreforma izan da oinarrizko lehentasun kopuru jakin batean zentratzea, eta honen bitartez egin da: Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) bidez landa-garapenari laguntzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamendua –Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Erregelamendua indargabetzen du–. Erregelamendu honetan aplikatzekoak diren xedapenak Batzordearen 2014ko uztailaren 17ko 808/2014 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren bidez ezarri dira. Horrela, programazio-aldirako helburuak lortzeko –2014ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra–, aipatutako Erregelamenduan zehazten da nahitaezkoa dela Leader ikuspegia aplikatzea, izan ere, landa-garapena sustatzeko duen eraginkortasuna frogatu da urteetan zehar, osoki aintzat hartuz landa-garapen endogenoko sektore anitzeko beharrianak, goranzko planteamendu baten bidez.

Aurreko etapan bezala, martxan jarri beharreko neurriak erregelamenduzko aginduaren bidez planifikatu behar dira. Horretarako, kudeaketa-agintaritzak, euskal erakunde publikoekin lankidetzan, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapeneko Programa egin du; bertan, plangintza hori jasotzen da, eta Batzordearen Betearazpen Erabakiaren bidez C (2015) 3479 Erabakia, azkena, 2015eko maiatzaren 26koa, onetsi da. Landa Garapeneko Programa (LGP) hau 2014-2020 aldirako Landa Garapenerako Esparru Nazionalak ezarritakoa kontuan hartuta egin da; 2014-2020 aldirako Landa Garapenerako Esparru Nazionala Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak egin zuen, eta 2015eko otsailaren 16ko Batzordeak onetsi. LGPan sartutako neurrien arau esparrua 43/2017 Dekretuan jasotakoa da (43/2017 Dekretua, 2017ko otsailaren 14koa, zeinaren bidez 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapeneko Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen baita), zehazkiago, arau horren eranskinean jasotzen da 19. neurria: Leader tokiko garapenerako laguntza. 19.2. Partaidetzan oinarritutako tokiko garapenaren estrategien bidez operazioak ezartzea. Horren deialdia arau honen bidez egiten da.

Europako Parlamentuaren eta Batzordearen abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamendua ezartzen du, 32. artikuluan, toki-garapen parte-hartzailea LGENFek babestuko duela, Leader tokiko garapen gisa izendatuko dela, eta EGEFen, EGIFen edo FEMPen laguntza ere izan ahalko duela. Azpieskualdeko gune jakinetan zentratuko da partaidetzazko toki-garapen hori, tokiko ekin-tza taldeek gobernaturiko dute, ongi integratutako toki-garapeneko estrategien eta sektore anitzeko estrategien eta guneetan oinarritutakoen bidez gauzaturiko da; tokiko beharrianak eta potentziala aintzat hartuz diseinatuko da, eta alderdi berritzaileak barne hartuko ditu tokiko testuinguruan, baita sareak, eta, hala behar denean, lankidetzaz ezarri ere. Halaber, azalpen-zatiaren 32. apartatuaren arabera, toki-garapen parte-hartzailea (aurrerantzean, TGP) egin behar da helburu tematiko bakar baten testuinguruan: gizarteratzea eta pobreziaren aurkako borroka edo enplegua eta lan-mugi-

kortasuna sustatzea, hargatik eragotzi gabe TGPren parte gisa finantzatutako ekintzek lagundu ahal izatea gainerako helburu tematiko guztietan.

Halaber, toki-garapen parte-hartzailerako estrategiei buruzkoa da aipatu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 (EE) Erregelamenduaren 33. artikulua, eta bertan adierazten da helburuok zer elementu izan behar duten gutxienez eta Estatu kideek definituko dituztela estrategia horiek hautatzeko irizpideak. Kudeaketa-agintaritza arduradunak horretarako sortutako batzorde batek hautatuko ditu estrategiak, eta agintaritza horiek berek onartuko dituzte. Tokiko ekintza taldeek diseinatu eta praktikan ezarriko dituzte toki-garapen parte-hartzailerako estrategiak; egin beharreko lanak aipatu erregelamenduaren 34. artikuluan ezartzen dira. Gure autonomia-erkidegoan Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko abenduaren 30eko Aginduaren bidez (2016ko urtarrilaren 4ko EHAA, 1. zk.) egin zen taldearen hautaketa (agindu horren bidez iragartzen da toki-garapen parte-hartzailerako estrategiak onartzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan horien kudeaketaren ardura duten Tokiko Ekintza Taldeak hautatzeko deialdi publikoa, 2015-2020 aldirako Landa Garapeneko Programaren barruan). Hautaketa-prozesua Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren 2016ko urriaren 6ko Ebazpenaren bidez amaitu zen (horren bidez, «Mendinet Landa Garapena sustatzeko Elkartea» Euskal Autonomia Erkidegoko toki-ekintzako talde izendatu da, eta elkarte horrek proposatutako tokiko garapen parte-hartzailerako estrategia onartu da). 2016ko urriaren 28an sinatu zen lankidetzeta-hitzarmena talde horrekin.

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

1.– Onestea, 2020. urterako, Toki Garapen Parte Hartzaileko Estrategian (Leader ikuspuntua) zehaztutako helburuak betetzera bideratutako dirulaguntzen oinarriak. Deialdia Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren 2016ko urriaren 6ko Ebazpenaren bidez onetsi zen, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapeneko Programan zehaztutakoaren arabera (plana Batzordearen 2015eko maiatzaren 26ko C (2015) 3479 Erabakiaren bidez onartu zen). Horiek I. eranskin gisa gehitu dira.

2.– Eskabide-ereduak onartzea. Eredu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan argitaratzen dira: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/10509>, eta honako eranskin hauek: III (Enpresa Plana), IV (besteren konturako kontratazioaren memoria), V (Leader herrietako zerbitzu publikoen azpiegituretako eta berrikuntzako inbertsioen memoria) eta VI (Etxebizitza memoria).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Landa-garapenaren arloan eskumena duen saileko titularrari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira epeak.

2020ko irailaren 3a, osteguna

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean ondorioak izango ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 25a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2020ko irailaren 3a, osteguna

## I. ERANSKINA

## I. KAPITULUA

## ZATI OROKORRA

1. oinarria.– Xedea eta izaera.

1.– Agindu honen xedea da Toki Garapen Parte Hartzaileko Estrategian (Leader ikuspuntua) zehaztutako helburuak betetzera bideratutako dirulaguntzen deialdia egitea. Deialdia Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren 2016ko urriaren 6ko Ebazpenaren bidez onetsi zen, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapeneko Programan zehaztutakoaren arabera (plana Batzordearen 2015eko maiatzaren 26ko C (2015) 3479 Erabakiaren bidez onartu zen).

2.– Deialdi honen xede dira jarraian zehazten diren lerro hauek:

a) Ekintzailtzarako laguntzak, II. kapitulan zehaztutakoak.

b) Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko laguntzak, III. kapitulan zehaztutakoak.

c) Besteren kontura kontratatze laguntzak, IV. kapitulan zehaztutakoak.

d) Udalerrien azpiegiturak eta oinarrizko zerbitzuak egin eta berritzeko laguntzak, V. kapitulan zehaztutakoak.

e) Etxebizitzarako laguntzak, VI. kapitulan zehaztutakoak.

3.– Agindu honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli behar ez diren horietarikoak izango dira.

2. oinarria.– Eremu geografikoa.

Aplikaziorako eremu geografikoa Leader eremurako hautatutako udalerri guztiek osatuko dute. II. eranskinean daude jasota, landa-izaeraren arabera hiru mailatan banatuta (1M, 2M eta 3M).

3. oinarria.– Baliabide ekonomikoak.

II., III., IV., V. eta VI. kapituluetan aurreikusitako laguntzak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatu dira, Batzordeak EAEko Landa Garapeneko 2015-2020 Programan onartutako finantzaketa gehigarri gisa. Laguntzen kantitatea bost milioi berrehun mila (5.200.000) eurokoa izango da, honela banatuta:

Laguntza mota		Funtsak	Funtsak	Guztira
		2020	2021	
II. Kap. – Ekintzailtzarako laguntza		77.500	77.500	155.000
III. kap. – Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsioak	Dibertsifikazioa	54.000	146.000	200.000
	Gainerakoa	660.000	1.540.000	2.200.000
IV. kap. – Besteren konturako kontratazioa		22.500	22.500	45.000
V. kap. – Udalerrietako azpiegiturak, oinarrizko zerbitzuak eta berritzea		713.500	1.686.500	2.400.000
VI. kap. – Etxebizitza		72.500	127.500	200.000
Guztira		1.600.000	3.600.000	5.200.000

4 oinarria.– Onuradun izateko betekizun orokorrak.

1.– Onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, nortasun juridikoa dutenak edo ez dutenak eta edozein unitate ekonomiko eta ondare bereizi, nortasun juridikorik izan gabe ere, aurreikusitako proiektu eta jarduerak egin baditzakete. Azken kasu horretan, haietan partaide diren pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiak bete beharko dituzte oinarri hauetan eta horiek garatzeko eta aplikatzeko arauetan ezarritako betekizun eta baldintzak.

2.– Aurreko apartatuan zehaztutako pertsonak eta/edo proiektuek otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuaren (2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko Programan jasota dauden laguntzen esparru-legedia ezartzen duena) 5. artikuluan ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte, hala nola Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasota daudenak eta laguntza-lerro bakoitzerako berariaz ezarrita daudenak eta, zehazki, hauek:

a) Diruz lagundu daitezkeen jarduketak hasi gabe egotea eskaera aurkezten den unean edo epe horren aurretik, 5. oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik. III., V. eta VI. kapituluetak «inbertsioen» kasuan, in situ ikuskapen baten bidez egiaztatuko da egoera. Ikuskapena 15 egun balioduneko epean egingo da gehienez ere, laguntza-eskaera sartzen den egunetik aurrera, eta kontrol-akta bat bidaliko da horretarako, inbertsioak abiarazi ez direla ziurtatuko duena. Kontrol-akta horren bi kopia sinatu beharko dira pertsona eskatzailearen aldetik eta «Mendinet Landa Garapena Sustatzeko Elkarteko» (aurrerantzean, Mendinet) ordezkari baten aldetik. Eskatzaileek diruz lagun daitezkeen jarduerak hasi baino lehen, kontrol hori egin beharko da. «Inbertsiorik ez» badago, faktura bidez egiaztatuko da inbertsioa abiarazi ez dela, eta proiektua hasi baino lehenagoko datarik ezin izango du izan.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren mendeko erakundeek emandako laguntzen edo diru-laguntzen esparruan, itzulketa- edo zehapen-prozeduretako kantitate zehatzen ordainketari dagokionez egunean egotea. Betebehar horien ordainketak egunean dituztela ulertuko da zorrak atzeratuta eta zatituta badaude, eta, gainera, gaineratutako zor, interes eta gastu guztiak estaliko dituen bermea eratu bada.

d) Enpresak krisialdian ez egotea estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).

e) Elkarteen kasuan, horiek ez egotea Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debeku-kausetan. Ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egoteagatik, administrazio-prozedura ez etetea, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, betiere ebazpen judizial sendorik esleitzen ez bada, haren arabera, kasuan kasuko inskripzioa egin ahal izango baita dagokion erregistroan.

f) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen epai irmorik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatik debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorritik.

g) Konkurtso-deklaraziorik ez duela eskatu, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota ez dagoela, konkurtsoan deklaraturik ez dagoela, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren eraginpean ez dagoela edo desgaitua ez dagoela Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

h) Administrazioarekin hitzartutako edozein kontratu ezeztatzea eragin ez izana.

i) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez egotea Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkek arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat ez izatea, horietan ezarritako baldintzetan.

j) Erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean ez izatea zerga-egoitza.

k) Ezin izango dute onuradun izan nortasun juridikorik gabeko taldeek, baldin eta kideren batek aurreko debekuren bat badu.

l) Dirulaguntzak jasotzeko galarazpenek honako enpresa hauei ere eragingo diete: zuzentzen dituzten pertsonak edo beste zirkunstantzia batzuk direla-eta, pentsa badaiteke beste enpresa batzuen jarraipena edo deribazioa direla –eraldaketa, bategitea edo ondorengotzaren ondorioz–, eta horietan debeku horien arrazoiak gertatu badira.

m) Eskatzaileek jakinarazi behar dute diruz laguntzen den gastu bera ordaintzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten ala ez administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatuen bati, eta eskuratu duten ala ez.

n) Berreskuratze-agindu baten menpe ez egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

o) Pertsona juridikoen kasuan, legez eratuta edo horretarako bidean egotea, eta dagokion Erregistroan inskribatuta edo inskribatzeko bidean egotea.

p) Nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen edo bestelako elkarte edo erakundeen kasuan, emakumeen presentzia izatea zuzendaritza-organoetan.

3.– Aurreko lerrokadako c) apartatutik o) apartatura jasotako debekuak erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko dira, eta bere horretan mantenduko dira kasu bakoitzean zehazten diren inguruabarrak mantentzen diren bitartean.

4.– f) apartatuan xedatutako baldintzaren irismena epai edo ebazpen irmoak zehazten duena izango da. Bestela, irismena araudiz zehaztutako prozeduraren bidez ezarriko da, eta ezingo da bost urtetik gorakoa izan debekua ez bada epai irmo baten ondoriozkoa.

5.– h) apartatuan ezarritako debekuaren egiaztapena eta irismena Sektore Publikoko Kontratuen Legeari jarraikiz zehaztuko da.

5. oinarria.– Eskabideak, agiriak eta horiek aurkezteko epea.

1.– Pertsona fisikoek modu presentzian zein elektronikoa aurkez ditzakete eskabideak. Eskabidea izapidetzeko eta dokumentazioa aurkezteko moduak (elektronikoa zein presentziala izan) ez du behartuko aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapidetza modu berean egitera, edoniz alda daiteke eta. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

- Presentziala: eskaerak «Mendinet Landa Garapena Sustatzeko Elkartean» aurkeztu beharko dira, Arkauteko egoitzan (Vitoria-Gasteiz z/g, 01192 Araba).

- Modu elektronikoa, 3. apartatuan adierazitakoarekin bat etorriz.

2.– Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek eta administrazioarekin harreman elektronikoa izan behar duen pertsona interesdunen ordezkariak bide elektronikoa erabiliz bakarrik egin ditzakete izapideak, eta ez dira kontuan hartuko aurrez aurre aurkeztutako eskaerak, kasu honetan, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

3.– Eskabideak, bide elektronikoz zein presentzialez, eskabide bidez aurkeztuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskuragarri dauden eskabide-eredu normalizatuen arabera.. II., III., IV., V. eta VI. kapituluetan araututako laguntza-ildo bakoitzari interesdunek nahitaez erabili beharreko eskabide-eredu espezifiko bat dagokio: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050912> (ekintzaitzarako laguntzak, II. kapitulua); <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050914> (enpresetan inbertitzeko laguntzak, III. kapitulua); <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050915> (besteren konturako kontrataziorako laguntzak, IV. kapitulua); <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050916> (azpiegituretarako, oinarritzko zerbitzuetarako eta udalerrien berrikuntzarako laguntzak, V. kapitulua); <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050917> (etxebizitzarako laguntzak, VI. kapitulua).

4.– Eskabidea egin osteko izapideak helbide elektroniko honen bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, artikulua hauetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkariak: Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikulua. Ildo horretan, eta agindu honen esparruan, ordezkariak egiaztatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ordezkariaren erregistro elektronikoa inskribatuta badago (<https://www.euskadi.eus/representantes>). Ordezkariak erregistro horretan inskribatuta ez badago, borondatezko ordezkariak emateko inprimaki normalizatua bete ( <https://www.euskadi.eus/emakida-ordezkaritza>) edo zuzenbidean onartutako beste edozein modutara egiaztatu beharko da ordezkariak.

6.– Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera:

a) Hirugarrenen alta, elektronikoki izapidetu ahal izango da dagokion zerbitzuaren bidez. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan dago eskuragarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datu-aldaketa/web01-tramite/eu/> Gainerako izapideetarako bezala, izapidetze elektronikora behartuta dauden pertsonak eta erakundeak hirugarrenaren alta lortzeko erabili beharko dute zerbitzu hori.

b) Ordezkaritza egiaztatzea, hala badagokio.

c) Pertsona juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko erakundea izanez gero, erakundearen IFK, erakundearen eratzeko-erakundea eta estatutuak, dagokion erregistroan zigitatuta.

d) Lerro bakoitzeko zehaztu diren baldintza orokorrak eta zehatzak betetzen direla jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena.

e) Aurrekontuak, proformako fakturak eta/edo fakturak. Aurrekontuen edo proformako fakturen kasuan, ez dira onartuko 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitakoak. Fakturak, nolahi ere, ezin izango dira deialdiaren urtea baino lehenagokoak izan.

Eskatzaileak enpresa hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunen entrega kontratatu aurretik, zerbitzu edo ondasun horren ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen duen behar besteko erakunderik ez dagoenean izan ezik edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada izan ezik. Aurkeztutako eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berriaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikoki abantailatsuena ez hautatzearen arrazoia.

Eskatzailea erakunde publikoa bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa beteko da. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Eskabidearekin batera proformako hiru aurrekontuak/fakturak aurkezten ez badira, inbertsioa edo gastua ez da kontuan hartuko diruz lagundu daitekeen zenbatekoa kalkulatzeko.

Aurrekontuak, proformako fakturak eta/edo fakturak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez aurkeztu beharko dira, eta, gutxienez, informazio hau izan beharko dute:

- a) Zenbakia (izatekotan).
- b) Bezeroaren izena.
- c) Hornitzailearen izena.
- d) Data.
- e) Kontzeptua.
- f) Zerga-oinarriaren eta BEZaren banakapena.

f) Laburpen-taula, aurrekontuen, proformako fakturen eta/edo fakturen xehetasunekin. Bertan, aukeratutako eskaintza zein den adieraziko da, honako hauetan eskuragarri dagoen ereduaren arabera: ekintzailatzarako laguntzak (II. kapitulua): <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050912>; enpresetan inbertitzeko laguntzak (III. kapitulua): <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050914>; azpiegiturak, oinarriko zerbitzuak eta udalerrriak berritzeko laguntzak (V. kapitulua).

Kontratazio-neurriari (IV. kapitulua) ez zaizkio aplikatuko e) eta f) apartatuak.

7.– Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzak automatikoki bereganatuko du zerga-betebeharren, gizarte-segurantzaren, NAN identitatearen eta ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) jakitun dela adierazten duen akreditazioa. Dena den, eskatzaileak nahi izanez gero, dokumentazio hori aurkeztu ahal izango du eskaerarekin batera.

8.– Pertsona eskatzaileek administrazio honetan edo beste edozein administrazio publikotan aurkeztu badute eskatutako dokumentazioa, eta aldaketarik ez dela egin berariaz adierazten bada, ez dute aurkeztu beharko dokumentazio hori, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua 3. paragrafoarekin bat etorritik. Adierazi beharko da, hala ere, noiz eta zer administrazio-organotan aurkeztu zuten agiri horiek. Eskaera aurkeztuz gero, baimena emango da organo kudeatzaileak dokumentazio hori eskuratzeko. Horrek ez du esan nahi baimena berariaz ukatu ezin denik. Hori egitekotan, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

9.– Eskabidea nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da, eskatutako dokumentazioarekin batera. Ildo horretatik, eskatzaile bakoitzak hautatutako hizkuntza erabiliko da eskaera aurkeztu ondoko jardueretan, prozedurak irauten duen bitartean, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarriko Legearekin bat.

10.– Ahal den guztietan, dokumentazioa formatu digitalean aurkeztuko da eta, lehentasunez, proiektu teknikoei, memoriei eta beste dokumentu handi batzuei dagokiena.

11.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Alabaina, onartu egingo dira epe horren aurretik aurkeztutako eskabideak, deialdiaren ekitaldiaren barruan egin badira. Eskabidea deialdi hau argitaratu aurretik egin bada, beste eskabide bat bete beharko da, 5. oinarrian xedatutakoaren arabera.



12.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluari jarraikiz, eskabideak betekizun guztiak betetzen ez baditu, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezkoak diren agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legaren 21. artikuluan ezarritako moduan emango den ebazpen baten bitartez.

13.– Edonola ere, beharrezkoak diren bestelako argibide eta/edo agiri osagarriak eskatu ahal izango zaizkio eskatzaileari, aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertzeko, ebaluatzeko eta eskabidea izapidetzeko.

6. oinarria.– Laguntzen kudeaketa.

1.– Otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuaren 10. artikulua betez, Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritza izango da programaren kudeaketa efiziente, efikaz eta egokiaren arduraduna. Alabaina, kudeaketa horretan parte hartuko du «Mendinet Landa-garapenaren aurrerapenerako elkarteak». Horrek, toki-ekintzako talde bezala, eskabideak eta eskatutako dokumentazioa aztertuko ditu, ikusteko beharrezkoa deb informazioa jasotzen duten eta lortu nahi dituzten laguntzen nolakotasunarekin bat egiten duten. Alderdi horiek egiaztatu ondoren, Dirulaguntzen Batzorde bat osatuko da; Mendineteko ordezkari batek eta Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzako bi langile teknikok osatuko dute Batzordea. Dirulaguntzen Batzordea osatuko duten pertsonak hauek dira:

Batzordeburua: Azucena Salazar Bayona.

Batzordekideak:

– Ángeles Díez Díez; idazkari-lanak ere egingo ditu.

– Yurre Peñagarikano Zubeldia, «Landa Garapenerako Tokiko Ekintzako Taldea – Mendinet» taldeko buru gisa.

Batzorde horrek ebatziko du, zuzenketetarako epea amaitu eta bi hileko epean, proiektuak diruz lagun daitezkeen edo ez, eta laguntzak ukatzeko ebazpen-proposamena igorriko dio Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzako pertsona titularrari, diruz lagundu ezin daitezkeen proiektuei dagokienez. Irizpide hauen arabera zehaztuko da proiektuek dirulaguntzarik jaso dezaketen edo ez:

- a) Proiektua bat etortzea aginduan jasotako lerroekin.
- b) Esku-hartzearen eremu geografikoa.
- c) Egikaritzeko egutegia.

Aldeko ebazpena jasotzen duten proiektuak Mendineti helaraziko zaizkio, eta, horrek, balorazio-batzorde gisa, espediente horiek baloratuko ditu, laguntza-lerro bakoitzari aplikatu beharreko irizpideen arabera; horrez gain, bakoitzaren txosten tekniko-ekonomikoa egingo du. Diru-laguntza batzordearen irizpena interesdunek kontsultatu ahal izango dute.

2.– Agindu honetan araututako laguntza-lerro bakoitza lehiaketa bidez esleituko da, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 51.1. artikuluan ezartzen denez.

3.– Eman beharreko hasierako laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurkeztutako proiektuak konparatuko dira, eta laguntza mota bakoitzerako zehaztu diren irizpideak eta balorazioa aplikatuko zaizkie.

4.– Ondoren, 3. oinarrian jasotako laguntza mota bakoitzeko aurkeztutako proiektuen zerrenda egingo da, puntu gehien duenetik puntu gutxien duenera ordenatuta edo, hala badagokio, zehaztutako lehentasun-sistemaren arabera. Ondoren, esleitu beharreko laguntzen zenbatekoa zehaztuko da, adierazitako ordenari jarraituz. Zerrenda bakoitzeko azken laguntzari dagokionez, proposamena diru kopuru erabilgarria baino handiagoa bada, ez da laguntzarik emango, eta beste laguntza mota batzuetara bideratutako funtsak handituko dira kantitate horrekin, premien arabera.

5.– Edonola ere, aurreko lerrokadako araua aplikatzean lortzen den zenbatekoa laguntza-eskaeran zehaztutakoa baino handiagoa bada, eskaeran zehaztutako zenbatekoa emango da.

6.– Sei laguntza motetatik bati dagokion kopurua agortzen ez bada, soberakina gainerakoan artean banatu ahal izango da, beharizanen arabera.

7.– Era berean, laguntzaren lehen esleipena egin eta hiru hilabeteko epean emandako zenbatekoak gutxitzen badira edo dirulaguntza jasotzeko eskabideari uko egiten bazaio, zenbateko horiek honako hauei esleituko zaizkie: hurrenkera zorrotz gordeta, dagokion laguntza motaren kreditu faltagatik laguntzarik jaso ezin izan duten eskabideei, betiere Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testuategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuan ezarritako mugen barruan.

8.– Mendinetek honako informazio hau bidaliko dio Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzari:

a) Deialdiaren betekizunak ez betetzeagatik ezestea proposatzen diren eskaeren zerrenda, eta, horrekin batera, ezesteko arrazoia.

b) Diruz laguntzea proposatu den proiektuen zerrenda. Bertan adieraziko dira proiektu bakoitzaren puntuazioa, eskatu duen pertsonaren nortasuna, eskatutako zenbatekoa, diruz lagundu daitekeen zenbatekoa eta aplikatu beharreko ehunekoa eta dirulaguntzaren zenbatekoa.

c) Atzera egin duten eskaeren ebazpena.

9.– Mendinetek egingo du diruz lagundutako jardueren kontrola eta jarraipena. Horretarako, egoki irizten dien ikuskatzeak egin ahal izango ditu, betiere diruz lagundutako proiektuak egoki exekututzen direla egiaztatzearen, eta, hartarako, pertsona onuradunek eman egin beharko dute eskatzen zaien informazio eta dokumentazio oro.

7. oinarria.– Laguntza zenbatekoa den.

1.– Eskabidearekin batera aurkeztutako aurrekontuak, proformako fakturak eta/edo fakturak oinarri hartuta kalkulatu da laguntzaren zenbatekoa. Baldin eta diruz lagundutako jardueraren behin betiko eta benetako kostua onetsitako gastuaren aurrekontua (laguntza zehazteko baliatu zena) baino txikiagoa bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, dagokion proportzioan, Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularraren likidazio-ebazpenaren bidez, eta, ondoren, dirulaguntzaren portzentajea oinarri berriari aplikatuko zaio. Diruz lagundutako jardueraren behin betiko kostu erreala handiagoa bada ere, dirulaguntzaren zenbatekoa ez da aldatuko.

2.– Gainfinantzaketa badagoen edo ez zehazteko, aurkeztutako gauzatze-aurrekontua izango da kontuan, eta ez jarduketaren behin betiko kostua.

## 8. oinarria.– Ebazpena.

1.– Otsailaren 7ko 43/2017 Dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoarekin bat, Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrak, ikusita Dirulaguntzetarako Batzordeak eta Mendinetek egindako proposamenak, ebazpen bakar bat emango du. Ebazpen hori arrazoitua egon beharko da erabakiak ebazpen-proposamenekin bat egiten ez duenean, azken horiek ez baitira lotesleak.

2.– Ebazpenak informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

a) Onartutako eskabideei dagokienez:

- Pertsona onuradunaren izena.
- Diruz lagundutako proiektua.
- Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa.
- Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.
- Jarduerak zein epetan gauzatu behar diren.

– Onuradunari honako agiri hauek aurkezteko betebeharra ezartzen dion klausula bat: erakundearen edo elkartearen eraketa egiaztatzekoa eta, hala badagokio, proiektua egiteko beharrezkoak diren lizentziak edo baimenak egiaztatzekoak.

b) Onartu ez diren eskabideei dagokienez:

- Pertsona eskatzaileen izena.
- Laguntza ukatzeko arrazoiak.

3.– Agindu hau indarrean sartu eta gehienez sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da ebazpena. Epe hori bukatu eta ebazpen berariazkorik eman ez bada, interesdunek ezetsizat jo beharko dituzte eskabideak, hala ezartzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

4.– Lehia-konkurrentziako prozeduraren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitalpena jakinarazpentzat hartuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan b) apartatuko 1. lerrokadan xedatutakoaren arabera. Hala eta guztiz ere, pertsona interesdun bakoitzari jakinaraziko zaio ebazpen osoaren berri. Nolanahi ere, lehenengo egin den jakinarazpenaren data joko da jakinarazpen-datatzat.

5.– Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Landa-garapenaren arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrari. Horretarako, hilabeteko epea izango du ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo edozein unetatik aurrera, administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera.

6.– Jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» ren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

9. oinarria.– Onuradunen betebeharrak orokorrak.

Onuradunek otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuaren 15. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, hala nola Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 14. artikuluan adierazitakoak eta laguntza-lerro bakoitzari berariaz dagozkienak eta hauek:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, baldin eta dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena hartu eta hamabost egunean onuradunek ez badiote berariaz uko egiten, onartu egiten dutela ulertuko da.

2.– Dirulaguntza erabiltzea eman zaion horretarako, eta emateko edo, bestela, likidatzeko ebazpenean ezarritako baldintzekin bat eginez.

3.– Pertsona onuradunari azken ordainketa egiten zaionetik aurrera, 5 urtez eutsi behar diete diruz lagunduta egiten dituzten inbertsioei eta, epe horretan, ezin dituzte besterendu ez amortizatu, ezta diruz laguntzen den helbururako barik beste helburu bat lortzeko erabili ere. Ondorio horietarako, eta ondasun higiezinak eraiki, eskuratu edo birgaitzeari dagokionez, jabariaren erabilgarritasuna mugatzeko erregistro-idazpena dagokion jabetzaren erregistroan eta hipotekei buruzko legeriaren arabera ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu pertsona onuradunak, azken ordainketa egiten denetik hilabete bateko epean.

4.– Besteren konturako kontratazioei dagokienez, sortutako enplegua 3 urtez mantendu beharko da gutxienez, onuradunari legez laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen zaion unetik hasita. Gainera, inoiz lanik egin ez duten pertsonak edo lehendik zuten lana galdu dutenak kontratatatu beharko dira.

5.– Mendineti honako hauen jakinaren gainean jartzea edo, bide elektronikoen kasuan, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> bidez:

a) Inbertsioa guztiz edo zati batean gauzatu izanaren jakinarazpena, eta behar den dokumentazio guztia haren esku uztea, inbertsioak eta gastuak egin dituztela egiaztatzeko.

b) 14. oinarrian jasotzen diren aldaketak eta egoerak.

6.– 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan aurreikusitako laguntzen esparru-araudia ezartzen duen otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuaren 9. artikuluan xedatutako informazio- eta publizitate-arloko betebeharrak betetzea. Bereziki:

a) Onuradunaren webgunean, halakorik badago, batera finantzatutako eragiketaren eta haren helburuen deskribapen laburra eta EBren finantza-laguntza nabarmenduta.

b) Azpiegitura- edo eraikuntza-lanak badira eta 50.000 eurotik gorako laguntza publikoa jasotzen badute, jendeak ikusteko moduko leku batean gutxienez A3 tamainako panel bat jarriko da, eragiketari buruzko informazioarekin eta EBren finantza-laguntza nabarmenduta.

7.– Jarduerarekin lotutako jakinarazpen guztietan, hizkuntza inklusiboa erabiliko da irudietan zein testuetan.

8.– Jasotako laguntzak zertarako erabili diren eta laguntzen helburuak bete diren fiskalizatzeko lanean dihardutela eskatzen duten informazio guztia eman beharko diete Mendineti, Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

9.– Eskura izatea merkataritza-legeriak eta kasu bakoitzean onuradun bakoitzari aplikatu ahal zaion sektoreko legeriak eskatutako terminoetan behar bezala ikuskatutako kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako agiriak, egiaztapen- eta kontrol-eskumenak egoki bete direla bermatzeko.

10.– Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ekintzetan erabil baitaitezke.

11.– Hala badagokio, jasotako funtsak itzultzea.

12.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea.

10. oinarria.– Gauzatzeko gehieneko epeak.

1.– Proiektuak 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean gauzatu beharko dira. Ez dira diruz lagunduko 2020ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako proiektuak.

2.– Laguntza emateko ebazpenean ezarritako epean burutu beharko dira diruz lagundu daitezkeen jarduerak. Epe horiek finantzaketa-kredituen izaerari egokituko zaizkio.

3.– Salbuespenezko egoeretan, Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrak bi urtera arteko luzapenak eman ahal izango ditu ebazpen bidez, ekintzailtzari laguntzeko neurriaren kasuan salbu. Horretarako, aurrez aurreko izapideen kasuan, onuradunak eskaera eta justifikazioa aurkeztu beharko ditu Mendineten. Idazkia, gehienez ere, inbertsioa edo gastua bukatuta egon behar duen eguna baino 30 egun natural lehenago aurkeztu behar da, laguntza emateko ebazpenak xedatutakoarekin bat etorritik. Bide elektronikoaren kasuan, hauetan egin beharko da luzapen-eskaera: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

11. oinarria.– Dirulaguntza jaso duten jardueren azpikontratazioa.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan xedatutakoa aplikatuz gero, honako kasu honetan kontsideratzen da onuradunak azpikontratatu egin duela: dirulaguntzaren helburu den jardueraren exekuzio partziala edo osoa hirugarrenekin hitzartzen duenean (887/2006 Errege Dekretuz onartzen da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua). Kontzeptu horretatik kanpo gelditzen dira onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kontura gauzatu ahal izateko egin behar dituen gastuak.

2.– Enplegua sortzeko kasuetan izan ezik, pertsona onuradunak diruz lagundutako jardueraren % 100era arteko azpikontratazioa egin ahal izango du. Ezin izango da jarduerarik azpikontratatu, baldin eta diruz lagundutako jardueraren kostua gehitu eta jardueraren edukiarri inongo balio erantsirik ematen ez badio. Hirugarrenekin azpikontratutako jarduerak dirulaguntzaren % 20tik gora hartzen badu eta kopuru hori 60.000 eurotik gorakoa bada, azpikontratazioak betekizun hauek konplitu beharko ditu:

a) Kontratua idazki bidez egitea.

b) Erakunde emaileak aldez aurretik baimena ematea kontratua egiteko.

Dirua lagundutako jarduerentzat jadanik beste administrazio publiko batek eman badu dirulaguntzarik, ulertu beharko da administrazio honek egiaztatu duela betekizun hauek konplitzen direla.

3.– Ezin da kontratua zatikatu, zenbatekoa murrizteko eta aurreko apartatuko baldintzak bete beharrik ez izateko helburuarekin.

4.– Onuradunaren aurrean baino ez daude behartuta kontratistak, eta onuradunak osorik bereganatuko du diruz lagundutako jarduera gauzatzearen ardura.

5.– Aurreko apartatuan jasotakoa betetzeko, pertsona onuradunei dagokie ziurtatzea, diruz lagunduko den jarduera gauzatzea hirugarrenekin hitzartuz gero, dekretu honek ezarritako mugak berdin errespetatuko direla diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoari eta izaerari dagokienez; kontratistek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 46. artikuluan adierazitako lankidetzeta-betebeharra bete behar dute, eta muga horiek benetan errespetatzen dituztela behar bezala egiaztatzeke aukera eman.

6.– Alabaina, onuradunak ezin izango du diruz lagundutako jardueraren gauzatze osoa edo partziala honako hauekin itundu:

a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan zehaztutako galarazpenetako batean dauden edo horri lotuta dauden pertsonekin.

b) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo erakundeekin.

c) Bitartekari edo aholkulariekin, horiei ordaindu beharrekoak eragiketaren kostu totalaren ehuneko jakin gisa definitzen badira; non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.

d) Onuradunei lotuta dauden pertsona edo erakundeekin, zeintzuk uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68.2. artikuluan ezarritakoak izango diren, honako egoera hauetako batean salbu:

i) Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea.

ii) Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularraren alde aurretiko baimena lortu izana.

e) Deialdi edo programa berean laguntza eskatu, baina betekizunak betetzen ez dituztelako edo beharrezko balorazioa lortu ez dutelako laguntzarik gabe geratu diren pertsonak edo erakundeak.

12. oinarria.– Laguntzen justifikazioa.

1.– Diruz lagundutako jardueraren inbertsioak edo gastuak egin ostean, onuradunak horiek amaitu direla jakinaraziko dio Mendineti.

2.– Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzako teknikariek dirulaguntza jaso duen inbertsioa egin dela eta gastua eraginkorra dela egiaztatuko da ziurtatuko dute, bai zuzenean bai agiri bidez. Egiaztatze materialaren bidez ziurtatuko da dena delako ondasun-objektua benetan badagoela, balioztaturiko proiektuari egokitzen zaiola, haren erabilgarritasuna eta funtzionamendua, dokumentuetako justifikazioarekin bat datorrela, eta dirulaguntza jaso duten inbertsio edo gastuen arabera beharrezkoak diren beste egiaztapenak.

3.– Inbertsioa eta/edo gastua behar bezala egin direla egiaztatuko da honako hauen bidez:

a) Egiten diren jarduketak justifikatzeko memoria bat, laguntzaren xede den proiektuaren gauzatzea azaltzen duena.

b) Fakturak eta ordainketaren frogagiriak, laguntzaren onuradun den pertsonaren izenean eginak. Horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, non zehaztuko baita fakturak eta gainerako justifikazio-agiriak ez direla aurkeztu diruz laguntzeko moduko beste programa batzuk justifikatzeko. Aitzitik, agiri horiek aurkeztu baldin badira diruz laguntzeko moduko beste programa batzuk justifikatzeko, zehaztu beharko da programak zein diren eta, faktura edo justifikazio-dokumentu bakoitzari dagokienez, zein den jasotako dirulaguntzaren portzentajea.

Adierazpen hori eskabide-inprimakian jasoko da.

c) Fakturen eta ordainagirien laburpen-taula xehatua, honako datu hauek barne hartuz: fakturazioaren eta ordainketaren datak eta erreferentziak, enpresa hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta aplikatutako zergak. Taula hori egiteko, honako eredu hau erabiliko da: Ekintzailatzarako laguntzetarako (II. kapitulua): <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050912>; enpresetan inbertitzeko laguntzetarako (III. kapitulua): <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050914>; azpiegiturarako, oinarritzko zerbitzuetarako eta udalerrien berrikuntzarako laguntzetarako (V. kapitulua): <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050916>; eta etxebizitzarako laguntzetarako (VI. kapitulua): <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050917>

d) Pertsonifikaturiko erakunde bat eratzearen baldintzapean badago laguntza, eraketa-akta, estatutuak eta dagokion erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria.

e) Laguntza jasotzeko, manuzko baimenak eta lizentziak aurkeztu behar badira eta laguntza-eskabidea egitean eman gabe badaude, haiek aurkeztu beharko dira.

f) Eskudiruzko ordainketa bidezko justifikazioen kasuan, ezin izango dira eskudirutan ordaindu 2.500 euroko edo gehiagoko operazioak (BEZa barne) edo atzerriko dibisetan kontrabaliu hori dutenak, operazioan parte hartzen dutenetakoren batek enpresari edo profesional gisa parte hartzen duenean. Hala ere, muga hori 15.000 eurokoa edo atzerriko dibisetan kontrabaliua izango da, baldin eta ordaintzailea pertsona fisikoa bada, zerga-helbidea Espainiatik kanpo duela justifikatzen bada eta erosketa enpresaburu edo profesional gisa egiten ez bada. Adierazitako zenbatekoak kalkulatzeko, ondasunen entrega edo zerbitzuen prestazioa osa dezaketen eragiketa edo ordainketa guztien kopuruak batuko dira.

g) Obrak egitearen ondoriozko gastuen kasuetan, eskumena duen maila teknikoko pertsona batek sinatutako obren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, obrak gauzatu direla frogatzeko.

h) Era berean, diruz lagundu daitekeen inbertsioaren guztizkoaren % 20ko mugarekin, justifikatuzat jo ahal izango dira bai onuradunak berak egindako lanak eta bai onuradunaren ingurukoak izanik enpresariak ez direnek edo hala ez dihardutenek egindako lanak ere. Kasu horretan, hornitzailearen faktura ordainduen bitartez justifikatu beharko dira materialak, eta dagokion alorreko elkargokide den profesionalak sinatutako ziurtagiriaren bitartez eskulana; ziurtagiri horretan direlako lanetan inbertitutako ordu guztien kostua zehaztu beharko da. Ezarritako baremo ofizialekin bat egin beharko da orduen balioespena; horrek ez du sekula ere gaintutako merkatuan lan haiek duten balorazioa, ezta urbanizazio- eta eraikuntza-prezioen oinarria ere, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean arlo honetan eskumena duen sailak argitaratutakoa. Edonola ere, onuradunari agiri osagarria eskatu ahalgo zaio.

i) 4. oinarrian zehaztutako onuradun izateko debekurik ez izatea justifikatzeko bide hauek erabili ahal izango dira: lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak edo administrazioaren ziurtagiriak, kasuaren arabera eta, dokumentu hori ematerik ez dagoenean, agintaritzaren administratibo baten edo notario publiko baten aurrean emandako erantzukizunpeko adierazpen bat.

4.– Besteren konturako kontratazioaren kasuan, honako hauek bakarrik aurkeztu beharko dituzte: lan-kontratuen kopia, Gizarte Segurantzaren alta emanda daudela egiaztatze dokumentazioa, kontratazioaren hilabeteko TC2a, altaren aurretiko langabezia-egoera egiaztatzen duen lan-bizitzaren txostena eta lanpostua sortu aurreko 12 hilabeteetan enpresan zegoen batez besteko langile kopurua egiaztatzen duen dokumentazioa.

5.– Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du, baimenik izan gabe, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela, hala xedatuta baitago azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bateginaren 50.3. artikuluan. Dena den, eskaera-egileak dagokion ziurtagiria aurkeztu ahal izango du.

6.– Kudeaketa egokia eta artikulua honen 1. apartatuan aipatzen diren laguntzen ordainketa bermatzeko, justifikazio-agiriak aurkezteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, laguntza emateko ebazpenean ezarritako inbertsioaren edo gastuaren azken egunetik edo azken luzapenean azken egunetik aurrera.

7.– Landa-garapenean arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrak agiri gehiago eska ditzake, behar bezalako arrazoiak emanda, egoki irizten badio.

#### 13. oinarria.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Landa-garapenean arloan eskumena duen zuzendaritzak egin beharko du ordainketa eta Mendineti egokituko ez zaizkion gainerako jarduketak, edo indarreko legearen arabera dagozkionak.

2.– Oro har, ordainketak laguntza aurreko oinarrian ezarritako baldintzetan arrazoitu ondoren eta Landa-garapenean arloan eskumena duen zuzendaritzako langile teknikariak ziurtapena egin ondoren egingo dira. Ziurtagiri hori egin ondoren, eta dokumentazioa osatu eta gehienez ere bi hilabeteko epean, beharrezko izapideak egingo dira ekonomiaren eta ogasunaren arloan eskumena duen sailaren aurrean, ordainketa egiteko.

3.– III., V. eta VI. kapituluetan jasotako dirulaguntzen kasuan, bi zati ordaindu ahal izango dira interesdunak hala eskatuta ekitaldi bakoitzeko, proiektuaren zati bat gauzatu dela egiaztatzeke agiriak aurkeztu ondoren.

Laguntza emateko unean, pertsona onuradunaren izaera bereganatzen duen erakundeari dagokion erregistroan eraketa eta inskripzioa oraindik egin gabe dauden kasuan, ez dira emango ordainketa partzialak, harik eta hura eratu arte.

4.– Onuradunei dirulaguntza hauek ordaintzeko, ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren edo haren erakunde autonomoen antzeko dirulaguntzak edo laguntzak direla-eta bideratzen hasitako itzulera- edo zigor-prozedurak amaituta edukitzea.

5.– Inbertsioak ez badira ezarritako gehieneko epeetan egiten, ezta epeen luzapenean ere, edo inbertsioa egin izana egiaztatzeke agiriak ez badira epean aurkezten, onuradunek dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko dute, eta, hala dagokionean, dirulaguntza itzultzeko prozedura edo prozedura berreslea jarriko da abian.

#### 14. oinarria.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Aldi berean beste edozein erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak eta laguntzak lortzen badira, hori jakinarazi beharko zaio Landa-garapenean arloan eskumena duen zuzendaritzari, egoera horren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan, eta, edonola ere, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen. Gerta liteke, ondorioz, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea; kasu horretan, dena dela, dekretu honetan ezarritako gutxienezko eskakizunak eta laguntza ematea eragin zuen xedea bete behar izango dira. Horretarako, Landa-garapenean arloan eskumena duen saileko titularrak dagokion aldaketa-ebazpena emango du. Ebazpen horretan, hala badagokio, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berriaren arabera egokituko dira, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitako itzulketa-prozedurari ekingo zaio, hala badagokio.



2.– Honako hauek jakinarazi eta justifikatu beharko zaizkio Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzari, baina laguntza emateko ebazpena ez da aldatuko: dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzea; onetsitako proiektua aurrez ikusitako epeetan ez egitea; proiektua aldatu edo birprogramatzea eskaerarekin batera aurkeztu zenarekin alderatuta, betiere aurkeztutako proiektua nabarmen aldatzen ez bada, agindu honetan ezarritako gutxieneko eskakizunak zaintzen badira eta laguntza ematea eragin zuen xedeari eusten bazaio.

Honako hauek jakinarazi eta justifikatu beharko zaizkio Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzari, eta gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea: dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzea; onetsitako proiektua aurrez ikusitako epeetan ez egitea; proiektua aldatu edo birprogramatzea eskaerarekin batera aurkeztu zenarekin alderatuta, betiere aurkeztutako proiektua nabarmen aldatzen bada, baina laguntza ematea eragin zuen xedea betetzen bada. Horretarako, aipatutako zuzendaritzako titularrak dagokion ebazpena aldatzeko ebazpena emango du.

Aldaketen jakinarazpena honako web-helbide honetan eskuragarri egongo den eredu normalizatuaren arabera egingo da: ekintzailtzarako laguntzak (II. kapitulua): <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050912>; enpresetan inbertitzeko laguntzak (III. kapitulua): <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050914>; kontrataziorako laguntzak (IV. kapitulua): <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050915>; azpiegituretarako laguntzak, oinarriko zerbitzu eta berrikuntzarako laguntzetarako (V. kapitulua): <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050916>; eta etxebizitzarako laguntzetarako (VI. kapitulua): <https://www.euskadi.eus/z/1050917>

3.– Dirulaguntzak emateko ebazpenaren zati bat betetzen ez bada eta aurkeztu eta onartutako proiektu bat bere osotasunean itxuragabetzen bada horregatik, emandako dirulaguntza baliogabetuko da. Horretarako, aipatutako zuzendaritzako titularrak dagokion ebazpena emango du, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitako itzultze-prozedurari hasiera emango zaio, hala badagokio.

15. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Eskatzaileak eskabide horretan atzera egiteko aukera izango du. Eskatutako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi baino lehen egin beharko du atzera. Atzera egiteko, halaxe egin dela egiaztatzea ahalbidetzen duen edozein modu erabiliko da, eta Landa-garapenaren arloan eskumena duen saileko titularrak izango da, ebazpen bidez, atzera egite hori onartu eta prozedura bukatutzat joko duena erakunde horri dagokionez.

2.– Emandako laguntzari uko egin ahal izango dio onuradunak. Emandako dirulaguntza onartu ondoren ere uko egin ahal izango zaio. Uko egiteko, halaxe egin dela egiaztatzea ahalbidetzen duen edozein modu erabiliko da, eta La Landa-garapenaren arloan eskumena duen saileko titularrak izango da, ebazpen bidez, berariaz onartuko duena uko egite hori eta prozedura bukatutzat joko duena erakunde horri dagokionez.

16. oinarria.– Ez-betetzeak.

1.– Onuradunak ez badu betetzen agindu honetako betebeharren bat edo dirulaguntzak emateko ebazpenak ezartzen duen baldintzaren bat, ez badu proiektua partez betetzen (eta, modu horretan, laguntzaren xedea osorik hutsaltzen badu), edo dirulaguntza edo laguntza publikoak itzultzeraren behar duen egoeraren batean badago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikularekin bat etorritik, laguntza eman zuen organo eskudunak, itzulketa-espeditatea izapidetu ondoren (interesduna entzunda), ebazpen bidez, dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko dio (partez edo erabat) onuradunari, eta, hala badagokio, aginduko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko hartu dituen laguntzak (guztia edo zati bat, proiektuaren betetze-mailarekiko modu proportzionalean) eta berandutze-interesak, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 53. artikularekin bat etorritik, hartara eragotzi gabe

beste neurri batzuk hartzea. Aipatutako diru kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

2.– Arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakarien ondorioz hasten bada itzulketa-prozedura, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakariok, dagokion zehapen-prozedura has dezan.

3.– Konpromiso edo betebehar orokor edo espezifikoetako bat ez betetzeak dirulaguntza doitzea edo guztiz itzultzeko beharra eragingo du. Kasu hauetan, emandako laguntzaren % 100a itzuliko da:

a) Ekintzailtza sustatzeko laguntzen kasuan, laguntza emateko ebazpena onartzen denetik 9 hilabetera Enpresa Plana martxan jarrita ez badago.

b) Ez bada jarduera hasten Europar Batasuneko, estatuko edo tokiko arau aplikagarrien arabera.

c) Jarduera uzten bada dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako epean edo horren luzapenean, ezinbesteko kasuetan edo ezohiko inguruabarretan izan ezik.

d) Porrota gertatzen bada dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako epean edo horren luzapenean, ezinbesteko kasuetan, ezohiko inguruabarretan eta iruzurrekoak ez diren porrotetan izan ezik.

e) Kokalekua aldatzen bada, baldin eta Leader eremutik kanpo geratzea eragiten duen Landartartasun-mailaren aldaketa badakar.

*Pro rata temporis* araua aplikatuko da ez bada kapitulu bakoitzean zehaztutako epean mantentzen dirulaguntzaren xede den jarduera, ezinbesteko kasuetan edo ezohiko inguruabarretan izan ezik.

17. oinarria.– Estatuaren laguntzak eta bateragarritasuna.

1.– II. kapituluaren araututako laguntzak Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 25eko 702/2014 (EB) Erregelamenduaren arabera ematen dira (horren bidez, nekazaritzako eta basozaintzako sektoreetako eta landa-guneetako laguntza-kategoria batzuk zehazten dira Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz), eta bateragarriak izango dira edozein administrazio publiko, sail, organismo edo erakunde publiko zein pribatuk ematen dituenekin, betiere laguntzen metaketak ez badu eragiten dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa gainditzea.

2.– III. eta IV. kapituluaren araututako laguntzak Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduaren arabera ematen dira. Erregelamendu hori minimis laguntzei Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Ituneko 107. eta 108. artikulua aplikatzei buruzkoa da, eta ezartzen du enpresa jakin bati estatu kide batek emango dizkion laguntzen kopuru osoa ez dela 200.000 euro baino gehiagokoa izango, hiru ekitaldiko edozein alditan.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira onuradun berek administrazio publiko honetatik edo beste batzuetatik jasotako beste laguntza batzuekin, horien xedea edozein izanik ere, betiere laguntzen metaketak ez badu gainditzen onuradun bakoitzak hiru ekitalditan jaso dezakeen gehieneko zenbatekoa, hau da, 200.000 euro. Bateragarriak izango dira, halaber, minimis erregimenekoak ez diren laguntzekin, xede bererako edo beste baterako administrazio publikoak emandakoekin, baldin eta metaketak ez badu eragiten hiru ekitalditan 200.000 eurotik gorako zenbatekoa jasotzea edo ez badu gainditzen gainerako beste laguntzen alorrean aplikatzekoa den araudia.

3.– V. eta VI. kapituluetan araututako laguntzan bateragarriak izango dira beste edozein administrazio publikok, sailek, organismok edo erakunde publiko zein pribatuk emandakoekin, betiere gainfinantzaketarik ez badago. Dirulaguntza horiek ez dira estatuko laguntzak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen arabera.

4.– V. kapituluan araututako laguntzak bateraezinak izango dira Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritza 2019ko ekitaldian bere jardun-eremuan egindako beste edozein deialditan eskuratutakoekin. Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek ofizioz egiaztatuko dute bateraezintasun hori.

## II. KAPITULUA

### EKINTZAILETZARAKO LAGUNTZAK

18. oinarria.– Xedea.

1.– Laguntza honen xedea da nekazaritzako jardueren dibertsifikaziorako hasierako babesa ematea da, hura nekazaritzakoak ez diren beste jarduera batzuetara hedatzea, baita Leader eremuan nekazaritzakoak ez diren beste enpresa batzuk martxan jartzen laguntzea ere.

Nekazaritzakoak ez diren jardueretara dibertsifikatzen duten nekazariei eta gainerako pertsona fisikoei, eta nekazaritzakoak ez diren mikro-enpresa eta enpresa txiki berriei bideratuta dago laguntza.

2.– Jarduera ekonomikoa nekazaritzakoak ez diren beste eremu batzuetara dibertsifikatzeko proiektuen kasuan, dibertsifikazio-lerro berri bakoitzaren lehen inbertsioa bakarrik lagundu ahal izango da diruz.

3.– Leader eremuetan jarduera ekonomikoa berriak martxan jartzeko ahalegin ekintzailea aintzatesteko helburuarekin, kasuan kasuko proiektuaren ibilbide ekintzailean zehar gauzatu beharreko ekintzak babestuko dira. «Ekintzaitzako ibilbidea» zera da, negozio-idea izan eta hausnartzen denetik jarduera ekonomikoa abiarazi eta sendotu arteko fase guztiak.

4.– Deialdi honen ekitaldian eratu diren enpresek eta alta eman duten autonomoek ere eskabideak aurkeztu ahal izango dituzte, baldin eta eskaera aurkezteko unean beren enpresa-plana oraindik martxan ipini ez badute. Nekazaritza-dibertsifikazioa salbuespena da; izan ere, kasu horretan, ez dira kontuan hartuko eratze-data edo autonomoen alta-data.

19. oinarria.– Onuradunak.

Neurri honen onuradun izango dira honako hauek:

a) Leader eremuan, beren jarduerak nekazaritzakoak ez diren eremuetara dibertsifikatzen dituzten nekazariak (pertsona fisikoak edo juridikoak), betiere lanbide nagusia nekazaritza badute.

b) Sortu berriak diren eta nekazaritzakoak ez diren mikro-enpresak eta enpresa txikiak, Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioaren definizioa erabiliz.

c) Enpresa berri bat sortzeko konpromisoa hartzen duten pertsona fisikoak.

20. oinarria.– Onuradun izateko betekizun espezifikoak.

1.– Dibertsifikatu egiten duten nekazariak (pertsone fisikoak edo juridikoak) Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremu batean izan beharko dute egoitza soziala, eta laguntza-eskatzailaren lanbide nagusiak nekazaritza izan behar du. Pertsone juridiko batek nagusiki nekazaritzan jarduten duela ulertuko da, baldin eta bazkideen % 50 nagusiki nekazaritzat jo badaitezke. Sozietateak badira –forma juridikoa sozietate zibila bada salbu–, adierazitakoaz gainera, bazkideen partaidetzek edo akzioek izendunak izan beharko dute. Bere jardueraren dibertsifikazioa Leader eremuan egingo da.

2.– Mikro-enpresek eta enpresa txikiek landa-eremu batean izan behar dute egoitza soziala eta Leader eremuetan garatu behar dute beren jardura. Laguntzaren mozkina Leader eremuetarako izango da.

3.– Dirulaguntzaren onuradun diren pertsona fisikoek Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremu batean egon behar dute erroldatuta, eta beren enpresa berriaren jardura Leader eremuan garatu behar dute.

4.– Dirulaguntzaren xede den jardura ekonomikoarekin lotutako inbertsio fisikorik ez badago Leader eremuan, pertsona fisikoek Leader eremuan egon beharko dute erroldatuta eta pertsona juridikoek Leader eremuan izan beharko dute egoitza soziala.

21. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

1.– 5. oinarriko dokumentazio orokorrak gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Lanbide nagusia nekazaritza dela egiaztatzen duen agiria. Baldintza hori egiaztatzeko, dagozkion foru-aldundiak emandako ziurtagiria edo baldintza hori justifikatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira:

1) Urteko bere errentaren % 50, gutxienez, nekazaritzatik datorrela egiaztatzen duen agiria.

2) Ustiapenarekin zuzenean lotutako jardueretara bideratutako laneko denbora, nekazaritzako lan-unitateen arabera, lan-denbora osoaren erdia edo gehiago dela ziurtatzen duen agiria.

3) Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian bere konturako langile gisa edo bere konturako langileen edo autonomoen erregimen berezian alta emanda dagoelako egiaztaturia, nekazaritza-jardueraren arabera.

b) Dibertsifikatzen duen emakume nekazariaren kasuan, nekazaritzako ustiategiaren titularra edo titularkidea, izaera hori egiaztatu beharko du.

c) Izaera juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeak eta ondasun-erkidegoak direla eta, kide guztiek sinatutako agiria, non jasotzen baitira talde bakoitzeko kideek beren gain hartutako konpromisoak, baita horietako bakoitzak aplikatuko duen dirulaguntzaren zenbatekoa, taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahiko dituen ordezkari edo ahalduaren izena eta funtsen hartzaile gisa izendatutako kidearen izena ere –hark banatuko ditu taldeko gainerako kideen artean–.

d) Hala badagokio, sozietateen gaineko zerga (200 erdua), mikro-enpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko.

e) Enpresa Planak informazio gehigarri garrantzitsua badu eskaera-inprimakian txertatutakoari dagokionez, III. eranskineko ereduari jarraikiz erantsi beharko da.

f) Hala badagokio, proiektua gidatzen duen erakundearen ziurtagiria, ekintzaitzaren gaineko eskumena duela egiaztatzen duena.

g) Pertsona fisikoen kasuan, landa-eremuan edo Leader eremuan erroldatuta egotearen egiaztatzea, inbertsio motaren arabera.

h) Hala badagokio, jarduera egingo den lekuan ondasun higiezina erabiltzeko baimena ematen duen tituluaren egiaztatzea.

i) Hala badagokio, beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak, edo horiek lortzeko eskaerak.

22. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira honako hauek:

a) Autonomo-kuota.

b) Aholkularitza- eta kontsulta-gastuak.

c) Enpresa eratzeko notario-gastuak.

d) Ohiko gastuak (adibidez, alokairuak, argia eta ura), Enpresa Plana lantzen den lekuan, ohiko etxebizitza ez bada.

e) Enpresa-prestakuntza eta prestakuntza espezifikoak.

f) Azterketak, agiriak, merkatua edo/eta bideragarritasuna.

g) Azoketara joatea eta Europako prospekzio komertzialeko bidaiak, txartelak aurkeztuz justifikatuta.

h) Maketa eta prototipoak egitea.

i) Diruz lagundu daitezkeen proiektuarekin loturiko komunikazio-gastuak. Horien artean sar daitezke publizitate-kanpainak, webguneen diseinua eta erregistroa eta hostinga, sare sozialen diseinua, katalogoen, kartelen, informazio-liburuxken eta bisita-txartelen diseinua eta edizioa, etab.

j) Patenteak, homologazioak, erabilgarritasun-ereduak eta marka komertzialak eskatzeko, emateko eta erregistratzeko hasierako gastuak.

k) Ekipo informatikoak eta software-erosketak, bai eta berariazko garapen edo aplikazio informatikoak ere.

l) Ibilgailuen eta eraikinen errotulazio-gastuak.

2.– Hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Interes zordunak, finantza-gastuak eta banku-bermearen gastuak.

b) Berandutze-interesak, errekareruak, hertsapen-isunak, zehapen administratibo eta penalak, eta prozedura judizialen gastuak.

c) Zuzeneko zergak eta gizarte-aurreikuspeneko edozein araubidetara eginiko ekarpenak, laguntzaren onuradunari dagokionez.

2020ko irailaren 3a, osteguna

- d) Berreskura daitezkeen zeharkako zergak.
- e) Etxebizitzak, ibilgailuak edo etxean erabiltzeko ondasunak.
- f) Ondasunak eta zerbitzuak erostearen ondoriozko faktura edo kontratueta eginiko deskontuak eta kontratu publiko edo pribatueta kontratistak eginiko itzulketak edo ordainketak, aldaketen edo bestelako kausen ondorio direnak.
- g) Ostatu eta dieten gastuak.
- h) Material suntsigarrien erosketak, prototipoak eraikitzeke ezarritakoaren kalterik gabe.
- i) Lursailak eskuratzea edo alokatzea.
- j) Tabletak eta/edo telefono-terminalak eskuratzea, nahiz eta horiek aplikazio informatikoak barne hartu.
- k) Enpresarien edo profesionalen elkarteetako partaidetza-kuotak eta elkargoetako gastuak.
- l) Enpresaren langile-kostuak.
- m) BEZa, berreskurazina denean izan ezik.

3.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak konputatzeko aldia bi ekitalditakoa izango da, eskaera egiten den ekitaldia barne. Enpresa Planaren arabera, jarduera hasi eta gehieneko aldi konputagarria hamabi hilabetekoa izango da, aipatutako bi ekitaldien barnean.

4.– Jardueraren hasierarako baldintzak hauek dira:

- a) Juridikoki eratuta egotea, hala bada gorkio.
- b) Ekonomia-jardueren gaineko zergan izena emanda izatea jarduerari dagokion epigrafean eta horren ordainketa eguneratua izatea.
- c) Sozietatearen benetako kontrola duen pertsonaren Gizarte Segurantzako alta: kooperatiba bat, lan-sozietate bat edo merkataritza-sozietate bat bada, araubide orokorrean, eta autonomia baldin bada, langile autonomoentzako araubide berezian.

23. oinarria.– Onuradunen betebeharrak espezifikoa.

1.– Agindu honen 9. oinarrian jasotakoez gain, dirulaguntza emateko arrazoia den Enpresa Plana aplikatzen hasi beharko da dirulaguntza emateko ebazpena eman eta hurrengo 9 hilabeteetan, eta enpresaren alta eta haren jardura etenik gabe mantendu beharko dira azken ordainketa jaso eta hurrengo 2 urteetan. Enpresa Plana plan horretan jasotako gasturen bat egiten denean abian jarri dela ulertuko da.

2.– Pertsona onuradunak Enpresa Plana egoki gauzatzeko konpromisoa hartuko du. Ondorio horietarako, egoki gauzatu dela joko da baldintza hauek betetzen direnean:

- a) Plana gauzatzekoan hasieran aurkeztutako kronograma eta mugarriak errespetatzea.
- b) Jardura aldi konputagarrian zehar abiaraztea, 22.3. oinarriarekin bat etorritik.
- c) Enpresa eratu zeneko xede-jardura gauzatea.

2020ko irailaren 3a, osteguna

3.– Mendinetek laguntza bat planifikatu ahal izango du neurriaren onuradunentzat. Laguntza hori jarraipen-bileretan zehaztuko litzateke eta nahitaezkoa izango da horietara joatea. Jarraipen horren helburua da aurkeztutako Enpresa Plana modu egokian gauzatzen dela bermatzea.

24. oinarria.– Laguntza zenbatekoa den.

1.– Laguntzaren gutxieneko zenbatekoa 4.800 eurokoa izango da baldintzak betetzen dituzten onuradun guztientzat, eta 7.820 eurora arte handitu ahal izango da, jarraian agertzen den taulari jarraikiz.

Landatartasun-maila	Onuraduna			
	Nekazaritzaren dibertsifikazioarako proiektuak		Gainerako proiektuak	
	Jarduera nagusia nekazaritza duten gizonak eta emakumeak, nekazaritzako ustiategiaren titularrak edo titularkideak ez direnean	Jarduera nagusia nekazaritza duten emakumeak, nekazaritzako ustiategiaren titularrak edo titularkideak direnean	Gizonezkoak	Emakumeak
1M	6.800,00 €	7.820,00 €	6.800,00 €	7.140,00 €
2M	5.800,00 €	6.670,00 €	5.800,00 €	6.090,00 €
3M	4.800,00 €	5.520,00 €	4.800,00 €	5.040,00 €

Pertsona fisiko batez baino gehiagoz osatuta dauden pertsona juridikoen kasuan, «emakumeak» kategoriaren barruan sartzeko, gutxienez bazkideen % 50 emakumezkoak direla eta gutxienez kapital sozialaren % 50 bazkide emakumezkoen esku dagoela justifikatu beharko da. Nekazaritzako dibertsifikazioaren kasuan, jarduera nagusia nekazaritza duten eta nekazaritzako ustiategiaren titularrak edo titularkideak diren emakumeek osatu beharko dute % 50 hori.

Enpresa Planak diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk barne hartzen baditu autonomoen kuotaz, gastu arruntez, notario-gastuez eta aholkularitza-gastuez gain, aurreko taulan islatutako laguntzaz gain, onuradunek diruz lagundu daitezkeen gastuaren % 50eko laguntza jasoko dute.

Bi laguntzen batura ez da, inola ere, 70.000 € baino handiagoa izango.

2.– Laguntzak emateko orduan lehentasuna emango zaio 1. landatartasun-mailari, gero 2. mailari eta, azkenik, 3. mailari. Horietako bakoitzaren barruan, honako irizpide hauek kontuan hartuta emango dira laguntzak: lehenik eta behin, beste gastu batzuk dituzten proiektuei emango zaie laguntza (autonomoen kuotaz, gastu arruntez, notario-gastuez eta aholkularitza-gastuez gain), hurrenkera beherakorrean, diruz lagundu daitezkeen gastu handienetik txikienera. Gero, nekazaritzako dibertsifikazio-proiektuei emango zaie lehentasuna eta, horien artean, prozesuan, produktuan, merkatuan, antolaketan edo teknologian berrikuntzaren bat txertatzen duten proiektuei. Nekazaritzako dibertsifikazio-proiektuak ez diren proiektuei ere berrikuntzarekin lotutako lehentasun-irizpidea aplikatuko zaie.

Landatartasuneko 1. mailako eskaerei adierazitako irizpideen arabera laguntzak eman ondoren, aurrekonturik geratzen bada, 2. mailako eskaerak baloratuko dira, eta ondoren 3. mailakoak.

25. oinarria.– Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea.

1.– Dirulaguntza honelaxe ordainduko da:

a) Lehen ordainketa bat, dirulaguntzaren zenbatekoaren % 50ekoa, dirulaguntza emateko ebazpena eman eta gero. Dirulaguntza emateko ebazpena eman eta 9 hilabeteko epea igaro ondoren Enpresa Plana oraindik abian jartzeko badago, onuradunari jasotako laguntza itzul dezala eskatuko zaio.

b) Bigarren eta azken ordainketa bat, emandako laguntzaren gainerako % 50ekoa, Enpresa Plana gauzatu ondoren, hasiera batean aurreikusita zegoen moduan. Enpresa Plana modu egokian gauzaten ari dela egiaztatzeke, Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzako teknikariek in situ kontrol bat egingo dute. Onuradunak jardueraren dokumentazioa eta memoria aurkeztuko ditu, dirulaguntza jasotzeko betekizunak bete dituela eta Enpresa Plana behar bezala gauzatu duela egiaztatuz.

Azken ordainketa egitean, Enpresa Planean aldaketak egin badira hasiera batean aurkeztutako planarekin alderatuta, jaso beharreko laguntzaren kalkulua berrikusiko da eta laguntzaren azken zenbatekoa egokitu egingo da; horrela, bada, erabateko diru-itzultzeak edo itzultze partzialak egin beharko dira.

### III. KAPITULUA

#### ENPRESAK SORTU, HANDITU ETA MODERNIZATZEKO LAGUNTZAK

26. oinarria.– Xedea.

1.– Laguntza honen helburua da bigarren eta hirugarren sektoreetako edozein tipologiatako mikro-entresak, enpresa txikiak eta ertainak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsioetan laguntzea:

a) Nekazaritzakoak ez diren jarduerak ustiattegietan txertatzeko jarduketak, horien sostengu ekonomikoan laguntzen badute eta Leader eremuko enplegua mantentzen edo handitzen laguntzen badute.

b) Mikro-entresak, enpresa txikiak eta ertainak sortu, handitu eta modernizatzeko jarduketak Leader eremuan.

2.– Handitzeko jarduketa gisa ulertuko dira lehendik dauden ekoizpen- edo zerbitzu-unitateak handitzeko jarduketak, edo ekoizpen- edo negozio-lerro berriak.

3.– Modernizatzeko jarduketa gisa hartuko dira produktuetan, prozesuetan, zerbitzuetan edo negozio-ereduan irtenbide teknologiko berritzaileak barne hartzen dituzten jarduketak. Ez dira halakotzat hartuko diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen birjartze edo ordezte hutsak.

27. oinarria.– Onuradunak.

Neurri honen onuradun izango dira honako hauek:

a) Leader eremuan, beren jarduerak nekazaritzakoak ez diren eremuetara dibertsifikatzen dituzten nekazariak (pertsona fisikoak edo juridikoak), betiere lanbide nagusia nekazaritza badute. Pertsona juridiko batek nagusiki nekazaritzan jarduten duela ulertuko da, baldin eta bazkideen % 50 nagusiki nekazaritzat jo badaitezke. Sozietateak badira –forma juridikoa sozietate zibila bada salbu–, adierazitakoaz gainera, bazkideen partaidetzek edo akzioek izendunak izan beharko dute.

b) Nekazaritzakoak ez diren mikro-entresak eta enpresa txiki eta ertainak, Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioaren definizioa erabiliz.



c) Pertsona fisikoak.

28. oinarria.– Onuradun izateko betekizun espezifikoak.

1.– 4. oinarriko eskakizun orokorrak ez ezik, honako hauek ere bete behar dituzte:

a) Dibertsifikazioa egiten duten nekazari juridikoek Euskal Autonomia Erkidegoko edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, baita hiri-eremuan ere, betiere dibertsifikazioa Leader eremuan egiten bada eta onurak eremu horretarako badira.

b) Nekazaritzakoak ez diren mikro-enpresek, enpresa txikiek eta ertainek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, baita hiri-eremuan ere, betiere dibertsifikazioa Leader eremuan egiten bada eta onurak eremu horretarako badira.

c) Pertsona fisikoek Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuan egon beharko dute errolatuta.

2.– Dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoarekin lotutako inbertsio fisikorik ez badago Leader eremuan, pertsona fisikoek Leader eremuan egon beharko dute errolatuta eta pertsona juridikoek Leader eremuan izan beharko dute egoitza soziala.

3.– Aurreko bi deialdietan Leader laguntzak jaso dituzten eta deialdi honetan enpresa-jarduera bererako laguntza eskatu duten onuradunek ezin izango dute laguntzarik jaso hirugarren urtez jarraian. Hasiera-hasieratik argi eta garbi bereizitako faseak dituzten proiektuek bakarrik jaso ahal izango dituzte laguntzak ondoz ondoko zenbait deialditan.

29. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

1.– 5. oinarriko dokumentazio orokorraz gain, honako hau aurkeztu beharko da:

a) Lanbide nagusia nekazaritza dela egiaztatzen duen agiria. Baldintza hori egiaztatzeko, dagokion foru-aldundiak emandako ziurtagiria edo baldintza hori justifikatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira:

1.– Urteko bere errentaren % 50, gutxienez, nekazaritzatik datorrela egiaztatzen duen agiria.

2.– Ustiapenarekin zuzenean lotutako jardueretara bideratutako laneko denbora, nekazaritzako lan-unitateen arabera, lan-denbora osoaren erdia edo gehiago dela ziurtatzen duen agiria.

3.– Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian bere konturako langile gisa edo bere konturako langileen edo autonomoen erregimen berezian alta emanda dagoelako egiaztatzea, nekazaritza-jardueraren arabera.

b) Dibertsifikatzen duen emakume nekazariaren kasuan, nekazaritzako ustiategiaren titularra edo titularkidea, izaera hori egiaztatu beharko du.

c) Izaera juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeak eta ondasun-erkidegoak direla eta, kide guztiek sinatutako agiria, non jasotzen baitira talde bakoitzeko kideek beren gain hartutako konpromisoak, baita horietako bakoitzak aplikatuko duen dirulaguntzaren zenbatekoa, taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahiko dituen ordezkari edo ahalduaren izena eta funtsen hartzaile gisa izendatutako kidearen izena ere –hark banatuko ditu taldeko gainerako kideen artean–.

d) Hala badagokio, jarduera egingo den lekuan ondasun higiezin erabiltzeko baimena ematen duen tituluaren egiaztatzea.

e) Hala badagokio, sozietateen gaineko zerga, mikro-enpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko.

f) Pertsona fisikoen kasuan, landa-eremuan edo Leader eremuan erroldatuta egotearen egiaztatzea, inbertsio motaren arabera, 19.3. oinarrian ezarri bezala.

g) Enpresa Planak informazio gehigarri garrantzitsua badu eskaera-inprimakian txertatutakoari dagokionez, III. eranskineko ereduari jarraikiz erantsi beharko da.

h) Eraikuntza-, birgaitze- edo berriztatze-obrak egin behar badira, proiektu tekniko bat behar den ala ez justifikatuko duen udal-ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Proiektu teknikorik, memoriarik edo balioztatutako zerrendarik –aurrekontua barne, egin beharreko gastua behar bezala xehakatuko duena– behar ez bada, argi eta garbi adierazi beharko da obra egiteko kostua eta hari dagokion BEZa. Proiektu teknikoa, oinarritzko proiektua edo gauzatzeko proiektua behar bada.

i) Eraikuntza-, birgaitze- edo berriztatze-lanak egin behar badira, horiek gauzatzeko edo eskatzeko nahitaezko lizentziak edo baimenak.

j) Hala badagokio, lan-bizitzaren agiria eta/edo ziurtagiri akademikoak.

2.– Geroagoko fase batean, baina Balorazio Batzordearen bilera baino lehen, Mendinetek zinpeko adierazpen bat emango dio eskatzaileari, proiektua "erakunde sustatzailea" irizpidearen barruan zenbateraino gauzatu den egiaztatzeko. Horrela, proiektuaren azken garapen-maila egiaztatuko da, baloratu ahal izateko.

30. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Gastu edo inbertsio hauek lagun daitezke diruz:

a) Ondasun higiezinak eraikitzea edo birgaitzea.

b) Hirigintza-lanak eta lotutako beste azpiegitura batzuk.

c) aurreko puntuetan jasotako gastuei lotutako kostu orokorrak; adibidez, profesionalen ordainsariak, gehienez ere diruz lagundu daitezkeen kostuaren % 10eko mugarekin.

d) Makina eta ekipo berriak erosteko betebeharra duen finantza-erosketa edo -errentamendua, produktuaren merkatu-balioraino.

e) Ekipamendu informatikoak.

f) Webguneak garatzea.

g) Ondasun ukiezinetan eginiko inbertsio hauek: programa informatikoak erosi edo garatzea eta patenteak, lizentziak, egile-eskubideak eta marka erregistratuak eskuratzea.

h) Lan propioak (inbertsioa martxan jartzearekin lotutako zerbitzuak barne, proiektuen eta azterlanen idazketa salbu), diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren % 20ko mugarekin.

i) Jarduera berriari lotuta dauden bigarren eskuko ekipamenduak eta makinaria erostea, baldin eta aurreko 5 urteetan beste laguntzarik jaso ez badute.

j) Ibilgailu bat erostea, baldin eta diruz lagundutako jarduera bertan garatzen bada eta horretarako beharrezko egokitzapena jasan behar izan bada, edo jarduera ekonomikoa pertsonen edo salgaien garraioa baino ez bada. Kontzeptu horrengatik diruz lagun daitekeen inbertsioa ez da ibilgailuaren guztizko zenbatekoaren % 20 baino handiagoa izango, edo, hala badagokio, 20.000 euro baino gehiagokoa.

k) Ibilgailuak egokitzea, diru-laguntzaren xede den jarduera garatzeko. Kontzeptu horrengatik diruz lagun daitekeen inbertsioa ez da 10.000 eurotik gorakoa izango.

l) Tresnak.

m) Higigarriak.

n) Laguntza-eskaeraren xede den inbertsioari lotutako azterlanak, gehienez ere diruz lagundu daitekeen kostuaren % 10eko mugarekin.

o) Aplikatu beharreko legeriaren arabera berreskuratu ezin den BEZa.

Dirulaguntza jasoko duen inbertsioak 5.000 €-koa izan behar du gutxienez.

2.– Hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Ondasun higiezinak eskuratzea, baita finantza-errentamenduaren bidez ere.

b) Interes zordunak, finantza-gastuak eta banku-bermearen gastuak.

c) Berandutze-interesak, errekarquak, hertsapen-isunak, zehapen administratibo eta penalak, eta prozedura judizialen gastuak.

d) Zuzeneko zergak eta gizarte-aurreikuspeneko edozein araubidera eginiko ekarpenak, laguntzaren onuradunari dagokionez.

e) Berreskura daitezkeen zeharkako zergak.

f) Etxebizitzak, ibilgailuak edo etxean erabiltzeko ondasunak.

g) Ondasunak eta zerbitzuak erostearen ondoriozko faktura edo kontratuetan eginiko deskontuak, eta kontratu publiko edo pribatuetan kontratistak eginiko itzulketak edo ordainketak, aldaketen edo bestelako kausen ondorio direnak.

h) Obra-elementuak, ekipoak eta makineria birjartzeko edo soilik ordeztzeko inbertsioak.

i) Errentamendu-kontratuekin lotutako kostuak, erosteko aukera ematen dutenak, hala nola, errentatzailearen marjina, interesen birfinantzaketa-kostuak, gastu orokorrak eta aseguru-gastuak.

j) Lurrak eskuratzea.

k) BEZa ez da diruz lagunduko, non eta berreskurazina ez den, BEZari buruzko legeria nazionalaren arabera.

l) Tabletak eta/edo telefono-terminalak eskuratzea, nahiz eta horiek aplikazio informatikoak barne hartu.

m) Enpresen lekualdaketak, produktibitatearen igoera frogatzen bada salbu.

n) Makineriaren lekualdaketak.

2020ko irailaren 3a, osteguna

o) Negozio-intsuldaketak.

p) Proiektuarekin lotutako gastu arruntak eta komunikazio- eta publizitate-gastuak.

31. oinarria.– Balorazio-irizpideak.

Proiektuak eskaerarekin batera aurkeztutako Enpresa Planarekin bat etorri baloratuko dira, eta dagozkien irizpideak eta baremazioa aplikatuko dira, hurrengo taulak oinarritzat hartuta. Plan horretan jasotako alderdiak bakarrik izango dira kontuan eta, hala badagokio, dokumentuen bidez frogatutakoak.

a) «Nekazaritzako dibertsifikazioa» Inbertsioen azpineurriari dagozkion irizpideak:

Irizpideak eta gehieneko puntuazioa	Azpi-irizpideak/oharrak	Deskribapena	Puntuak	
Landatartasun-maila (15 puntu)		1M	15	
		2M	12	
		3M	10	
LGP-ra egokitzea (20 puntu)	Proiektuaren tipologia (15 puntu)	Lehentasan handia	15	
		Lehentasan ertaina	10	
		Lehentasan txikia	5	
	Zeharkako ardatzak (5 puntu)	Betetzen du	5	
		Ez du betetzen	0	
Proiektuaren enpresa-potenziala (20 puntu)	Hazkunde-potenziala (5 puntu) (Fakturazioaren hazkunde hiru urtetan)	7 urte baino gutxiago dituzten enpresa berriak		
		% 10etik gorako hazkundea	5	
		% 10eko edo hortik beherako hazkundea	3	
		7 urte edo gehiago dituzten enpresak		
		% 3tik gorako hazkundea	5	
		% 3ko edo hortik beherako hazkundea	3	
	Merkatu-azterketa (10 puntu)	Eskatutako apartatu guztiak garatzen ditu eta analisi egokia islatzen duten datu zehatzak eskaintzen ditu		10
			Eskatutako apartatuak garatzen ditu, baina ez ditu eskaintzen analisi egokia islatzen duten datu zehatzak	5
			Ez dago merkatu-azterketarik	0
		Mozkina (emaitzen kontua) (5 puntu)	Lehen eta hirugarren urteen artean	5
			Laugarren eta bosgarren urteen artean	3
			Bosgarren urtetik aurrera	0
Talde sustatzailearen balorazioa (15 puntu)	Prestakuntza eta esperientzia (10 puntu)	Aurkeztutako proiekturako prestakuntza eta esperientzia	10	
		Aurkeztutako proiekturako prestakuntza, esperientziarik gabe	5	
		Prestakuntzarik gabe, baina esperientziarekin	5	
		Prestakuntzarik eta esperientziarik gabe	0	
		Gauzatze-maila (5 puntu)	Gauzatua	5
	Hasita		3	
	Beste batzuk		0	

2020ko irailaren 3a, osteguna

Irizpideak eta gehieneko puntuazioa	Azpi-irizpideak/oharrak	Deskribapena	Puntuak
Enplegua sortzea (10 puntu)	Lanaldiaren % 50etik gorako enpleguak	2 lanpostu edo gehiago (propioa + apartekoa edo gehiago)	10
		Lanpostu 1 (propioa)	5
		0 lanpostu	0
Berrikuntza-maila (5 puntu)	Berrikuntza arlo hauetan: prozesua, produktua, merkatua, antolaketa edo teknologia	Proposamena berritzailea da	5
		Proposamena ez da berritzailea	0
Pertsona sustatzailea (15 puntu)	Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatuta dauden pertsona juridikoen kasuan, 15 puntu horiek jasotzeko behar bezala frogatu beharko dute gutxienez bazkideen % 50 emakumezko titularrak edo titularkideak direla eta gutxienez kapital sozialaren % 50 emakume bazkideen esku dagoela	Nekazaritzako ustiatzeko emakume titularra edo titularkidea	15
		Gainerakoa	0

b) «Gainerakoak» inbertsioen azpineurriari dagozkion irizpideak.

Irizpideak eta gehieneko puntuazioa	Azpi-irizpideak/oharrak	Deskribapena	Puntuak	
Landatartasun-maila (15 puntu)		1M	15	
		2M	12	
		3M	10	
LGP-ra egokitzea (20 puntu)	Proiektuaren tipologia (15 puntu)	Lehentasun handia	15	
		Lehentasun ertaina	10	
		Lehentasun txikia	5	
	Zeharkako ardatzak (5 puntu)	Betetzen du	5	
		Ez du betetzen	0	
Proiektuaren enpresa-potentziala (20 puntu)	Hazkunde-potentziala (5 puntu) (Fakturazioaren hazkunde hiru urtetan)	7 urte baino gutxiago dituzten enpresa berriak		
		% 10etik gorako hazkundea	5	
		% 10eko edo hortik beherako hazkundea	3	
		7 urte edo gehiago dituzten enpresak		
		% 3tik gorako hazkundea	5	
		% 3ko edo hortik beherako hazkundea	3	
	Merkatu-azterketa (10 puntu)	Eskatutako apartatu guztiak garatzen ditu eta analisi egokia islatzen duten datu zehatzak eskaintzen ditu		10
			Eskatutako apartatuak garatzen ditu, baina ez ditu eskaintzen analisi egokia islatzen duten datu zehatzak	5
		Ez dago merkatu-azterketarik	0	
		Mozkina (emaitzen kontua) (5 puntu)	Lehen eta hirugarren urteen artean	5
Laugarren eta bosgarren urteen artean	3			
Bosgarren urtetik aurrera	0			
Taldea sustatzailearen balorazioa (20 puntu)	Prestakuntza eta esperientzia (10 puntu)	Aurkeztutako proiekturako prestakuntza eta esperientzia	10	
		Aurkeztutako proiekturako prestakuntza, esperientziarik gabe	5	
		Prestakuntzarik gabe, baina esperientziarekin	5	
		Prestakuntzarik eta esperientziarik gabe	0	

2020ko irailaren 3a, osteguna

Irizpideak eta gehieneko puntuazioa	Azpi-irizpideak/oharrak	Deskribapena	Puntuak
	Gauzatze-maila (10 puntu)	Gauzatua	10
		Hasita	5
		Beste batzuk	0
Enplegua sortzea (10 puntu)	Lanaldiaren % 50etik gorako enpleguak	2 lanpostu edo gehiago (propioa + apartekoa edo gehiago)	10
		Lanpostu 1 (propioa)	5
		0 lanpostu	0
Berrikuntza-maila (10 puntu)	Berrikuntza arlo hauetan: prozesua, produktua, merkatua, antolaketa edo teknologia	Proposamena berritzailea da	10
		Proposamena ez da berritzailea	0
Pertsona sustatzailea (5 puntu)	Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatuta dauden pertsona juridikoen kasuan, 5 puntu horiek jasotzeko behar bezala frogatu beharko dute gutxienez bazkideen % 50 emakumezko direla eta gutxienez kapital sozialaren % 50 emakume bazkideen esku dagoela	Emakumezkoa	5
		Gizonezkoa	0

Laguntza jasotzeko 50 puntu eskatuko dira gutxienez, «Dibertsifikazioaren» azpineurrian nahiz «Gainerakoak» azpineurrian.

32. oinarria.– Laguntza zenbatekoa den.

1.– Enpresa jakin bati ematen zaizkion minimis laguntzen kopuru osoa ez dela 200.000 euro baino gehiagokoa izango, hiru ekitaldiko edozein alditan, Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduaren arabera (Erregelamendu hori minimis laguntzei Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Ituneko 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa da). Minimis laguntza eman direla joko da enpresei, aplikatzekoa den araubide juridikoa aplikatuta, horiek jasotzeko eskubidea aitortzen zaienean, minimis laguntzen ordainketa enpresak jasotzen duen uneari erreparatu gabe.

2.– Lortutako puntuazioaren arabera, proiektu bakoitzari esleitu beharreko laguntzaren ehuneko honela gauzatuko da:

Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %
100	50	87	43	74	37	61	30
99	49	86	43	73	36	60	30
98	49	85	42	72	36	59	29
97	48	84	42	71	35	58	29
96	48	83	41	70	35	57	28
95	47	82	41	69	34	56	28
94	47	81	40	68	34	55	27
93	46	80	40	67	33	54	27
92	46	79	39	66	33	53	26
91	45	78	39	65	32	52	26
90	45	77	38	64	32	51	25

Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %
89	44	76	38	63	31	50	25
88	44	75	37	62	31		

#### IV. KAPITULUA

##### BESTEREN KONTURA KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

###### 33. oinarria.– Xedea.

1.– Laguntza honen xedea da besteren konturako langile langabeen kontratazioa laguntzea, hala beren jarduerak dibertsifikatzen dituzten ustiatzietan nola mikro-enpresetan, enpresa txikietan eta ertainetan, bai eta pertsona bat kontratatzen duten autonomoen kasuan ere, Leader eremuetan lanpostuak sortzeko eta horrela landa-eremuko biztanleria mantentzen edo handitzen laguntzeko.

2.– «Lanpostuak sortzea» honela ulertuko da: establezimenduko lanpostu kopuru garbia handitzea aurreko urteko batez besteko kopuruaren aldean. Hortaz, kontuan hartutako epealdian sortutako uestzko lanpostu kopuruari epealdi horretan bertan deuseztatutakoak kendu beharko zaizkio.

###### 34. oinarria.– Onuradunak.

Neurri honen onuradun izango dira honako hauek:

a) Leader eremuan, beren jarduerak nekazaritzakoak ez diren eremuetara dibertsifikatzen dituzten nekazariak (pertsona fisikoak edo juridikoak), betiere lanbide nagusia nekazaritza badute. Pertsona juridiko batek nagusiki nekazaritza jarduten duela ulertuko da, baldin eta bazkideen % 50 nagusiki nekazaritza jo badaitezke. Sozietateak badira –forma juridikoa sozietate zibila bada salbu–, adierazitakoaz gainera, bazkideen partaidetzek edo akzioek izendunak izan beharko dute.

b) Nekazaritzakoak ez diren mikro-enpresak eta enpresa txiki eta ertainak, Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioaren definizioa erabiliz.

c) Pertsona fisikoak.

###### 35. oinarria.– Onuradun izateko betekizun espezifikoak.

Agindu honetako 4. oinarriko eskakizun orokorrak ez ezik, honako hauek ere bete behar dituzte:

1.– Dibertsifikatu egiten duten nekazariak (fisikoak edo juridikoak) Euskal Autonomia Erkidegoko Leader eremu batean egon beharko dute. Bere jardueraren dibertsifikazioa Leader eremuan egingo da. Kontratatutako pertsonak dibertsifikatutako jardueran egin beharko du lan, inolaz ere ez ustiatetan.

2.– Nekazaritzakoak ez diren mikro-enpresek, enpresa txikiek eta ertainek Leader eremuetan egin beharko dute beren jarduera. Berdin du egoitza soziala non dagoen, Leader eremuan dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoari lotuta dagoen egoitza fisiko bat dagoenean (lantegia, fabrika...) eta kontratatutako pertsonak bertan lan egiten duenean izan ezik. Kasu horretan, pertsona juridikoari egoitza soziala Leader eremuan izateko eskatuko zaio.

3.– Neurriaren onuradun diren pertsona fisikoek Leader eremuan bizi behar dute eta bertan egon behar dute errolatuta.

36. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

1.– 5. oinarriko dokumentazio orokorrak gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Lanbide nagusia nekazaritza dela egiaztatzen duen agiria. Baldintza hori egiaztatzeko, dagokion foru-aldundiak emandako ziurtagiria edo baldintza hori justifikatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira:

1) Urteko bere errentaren % 50, gutxienez, nekazaritza-tik datorrela egiaztatzen duen agiria.

2) Ustiapenarekin zuzenean lotutako jardueretara bideratutako laneko denbora, nekazaritzako lan-unitateen arabera, lan-denbora osoaren erdia edo gehiago dela ziurtatzen duen agiria.

3) Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian bere konturako langile gisa edo bere konturako langileen edo autonomoen erregimen berezian alta emanda dagoelako egiaztatzea, nekazaritza-jardueraren arabera.

b) Dibertsifikatzen duen emakume nekazariaren kasuan, nekazaritzako ustiategiaren titularra edo titularkidea, izaera hori egiaztatu beharko du.

c) Kontratutako pertsonak langabezia daudela justifikatzeko egiaztatzea.

d) Hala badagokio, kontratatutako pertsonak epe luzeko langabeak eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasun fisikoa edo psikikoa duten pertsona desgaituak direla justifikatzeko egiaztatzea.

e) Pertsona fisikoaren kasuan, errolda-agiria.

f) Izaera juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeen eta ondasun-erkidegoen kasuan, kide guztiek sinatutako dokumentua, non jasotzen baitira talde bakoitzeko kideek beren gain hartutako konpromisoak, bai eta haietako bakoitzak aplikatutako duen dirulaguntzaren zenbatekoa, taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahiko dituen ordezkari edo ahaldunaren izena eta funtsen hartzaile gisa izendatutako kidearen izena –hark banatuko ditu taldeko gainerako kideen artean–.

g) Sozietateen gaineko zerga, mikro-enpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzea.

h) Proiektua baloratzeko memoriak informazio gehigarri garrantzitsua badu eskaera-inprimakian txertatutakoari dagokionez, IV. eranskineko ereduari jarraikiz erantsi beharko da.

37. oinarria.– Laguntza zenbatekoa den.

1.– Dirulaguntzaren zenbatekoa sortutako lanpostu bakoitzeko kopuru finko bat izango da, betiere kontratatutako lanaldiaren arabera. Nolanahi ere, kasu bakoitzean aplikatzeko den hitzarmen kolektiboan xedatutako lanaldiaren % 50eko enplegua izan beharko da, gutxienez.



2020ko irailaren 3a, osteguna

2.– Laguntza honako taula honen arabera emango da:

Landatartasun-maila	Pertsona kontratatua			
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gizon desgaitua/ Luzaroko langabe gizonezkoa	Emakume desgaitua/ Luzaroko langabe emakumezkoa
1M	6.500,00 €	7.000,00 €	7.000,00 €	7.500,00 €
2M	5.500,00 €	6.000,00 €	6.000,00 €	6.500,00 €
3M	4.500,00 €	5.000,00 €	5.000,00 €	5.500,00 €

3.– Eskatzailea jarduera nagusia nekazaritza duen ustiategiko emakume titular edo titularkide bat bada, edo bazkideen % 50 gutxienez emakume titularrak edo titularkideak dituen pertsona juridikoa bada eta kapital sozialaren % 50 gutxienez emakume horiena bada, % 15eko zenbatekoa gehituko zaio oinarritzko taulari.

4.– Laguntzek ez dute gaindituko kontratatutako pertsonaren 2 urteri dagokion soldata gordinaren % 35a, hau da, zerga eta beharrezkoak diren gizarte-kotizazioak kalkulatu baino lehen.

5.– Zenbateko hori proiektu guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, 1. maila lehenetsiko da 2. mailaren aurretik, eta azken hori 3. mailaren gainetik. Maila bakoitzaren barruan, dirulaguntzak lehenetsun-hurrenkera honen arabera emango dira:

- a) Desgaitasuna duen edo luzaroko langabe emakumezkoa.
- b) Emakumezkoa.
- c) Desgaitasuna duen edo luzaroko langabe gizonezkoa.
- d) Gizonezkoa.

38. oinarria.– dirulaguntzaren ordainketa eta justifikatzeko dokumentazioa.

Lehen ordainketa bat egingo da, % 50ekoa, kontratazioa egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ondoren. Bigarren ordainketa, gainerako % 50a, lehenengoa egin eta urtebetera, eta Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzaren zerbitzu teknikoek egiaztatu ondoren sortutako lanpostuak mantentzen jarraitzen direla.

## V. KAPITULUA

### AZPIEGITURETAN, OINARRIZKO ZERBITZUETAN ETA LEADER HERRIAK BERRITZEKO INBERTSIOAK.

39. oinarria.– Xedea.

Laguntza honen xedea da inbertsioak sustatzea azpiegitura txikiak sortu, hobetu edo handitzeko, jarduketa hauen esparruan:

- a) Energia berriztagarriak, energia-aurrezpena, biomasa eta district heating.
- b) Oinarritzko zerbitzuak: ura, saneamendua, elektrifikazioa eta gasifikazioa. Ur- eta saneamendu-azpiegitura berriek bakarrik jasoko dituzte dirulaguntzak.
- c) Enpresa-ekimenen egoitza izan daitezkeen industrialde txikiak eta lokalak prestatzea.
- d) Turismoari lotutako eskala txikiko azpiegiturak.

e) Zerbitzuetarako eraikinak eta lokalak.

f) Biztanleguneen egokitzapena: urbanizazioak, euri-urak, plazak, zerbitzu bat eskaintzen duten eraikinen irisgarritasuna, aparkalekuak, parkeak eta lorategiak, haur-parkeak, argiteria, hiri-altzariak, markesinak eta abar. geoEuskadi web bisorea erabiliko da dirulaguntzaren xede-jarduketak biztanlegunearen mugen barruan kokatzen direla egiaztatzeko.

Dirulaguntzatik kanpo geratuko dira proiektu mota hauek:

a) Larrialdietarako etxebizitzak.

b) Fasetan banatu gabe dauden proiektuetarako inbertsioak, horien xedea higiezinak eraitea edo erostea bakarrik denean.

c) Euste-hormak, zerbitzu bat eskaintzen badute salbu.

d) Ondare-elementuak birgaitzea, dagokion kudeaketa-planaren bitartez justifikatutako jarduera ekonomiko bat sortzen bada salbu.

e) Kaleak, bideak, espaloiak eta abiaduraren disuasio-elementuak (arekak, irtenguneak...) zolatzeko helburua duten proiektuak.

f) Hilerriak.

40. oinarria.– Onuradunak.

Honako hauek izan ahalko dira onuradunak:

a) Toki-erakundeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera:

- Udalerria.

- Kontzejuak eta udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko bestelako erakundeak, lurralde bakoitzean dagoen foru-araudian eta toki-araubidean gainera oinarritzko legerian ezarritakoaren arabera.

- Udal-mankomunitateak.

- Arabako lurralde historikoko kuadrillak.

- Beste zeinahi erakunde, baldin eta tokiko lurralde-erakunde zenbait biltzen baditu, dagokion izendapen bereziarekin, apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

b) Tokiko sektore publiko instituzionala: tokiko erakunde autonomoak, tokiko enpresa-erakunde publikoak eta tokiko titulartasun publikoa duten merkataritza-sozietateak.

c) Landa Garapeneko Elkarateak (LGE), toki-erakundeek Leader eremu baten aldeko proiektua martxan jartzea haien esku uzten dutenean edo agintzen ditenean.

41. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

1.– 5. oinarriko dokumentazio orokorrak gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Proiektua baloratzeko memoriak informazio gehigarri garrantzitsua badu eskaera-inprimakian txertatutakoari dagokionez, V. eranskineko ereduari jarraikiz erantsi beharko da.

b) Hura gauzatzeko proiektu teknikoa behar den ala ez justifikatzen duen udal-ziurtagiria. Proiektu teknikorik, memoriarik edo balioztatutako zerrendarik –aurrekontua barne, egin beharreko gastua behar bezala xehakatuko duena– behar ez bada, argi eta garbi adierazi beharko da obra egiteko kostua eta hari dagokion BEZa. Proiektu teknikoa, oinarrizko proiektua edo gauzatzeko proiektua behar bada.

c) Proiektua gauzatzeko edo eskaera egiteko behar diren lizentziak edo baimenak.

d) Hala badagokio, jarduera egingo den lekuan ondasun higiezinak erabiltzeko baimena ematen duen tituluaren egiaztagiria.

e) Ondoren kudeatu behar diren proiektuen kasuan, erakunde eskatzaileek kudeaketa-plana aurkeztu beharko dute.

f) Hala badagokio, tokiko erakundeak LGEari egindako enkarguaren ziurtagiria, azken horrek proiektua martxan jar dezan.

2.– Geroagoko fase batean, baina Balorazio Batzordearen bilera baino lehen, Mendinetek zinpeko adierazpen bat emango dio eskatzaileari, proiektua "erakunde sustatzailea" irizpidearen barruan zenbateraino gauzatu den egiaztatzeko. Horrela, proiektuaren azken garapen-maila egiaztatuko da, baloratu ahal izateko.

42. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Gastu edo inbertsio hauek lagun daitezke diruz:

a) Ondasun higiezinak eskuratzea.

b) Urbanizazio-lanak burutzea.

c) Eraikitze-lanak burutzea.

d) Zaharberitze- edo birgaitze-lanak burutzea.

e) Beste azpiegitura batzuk.

f) Aurreko lau apartatuetan jasotako gastuei lotutako kostu orokorrak; adibidez, profesionalen ordainsariak, gehienez ere diruz lagundu daitezkeen kostuaren % 10eko mugarekin.

g) Tresneria.

h) Altzariak.

i) Informatika eta komunikaziorako ekipamendua, bai hardwarea bai softwarea.

j) Webgunea garatzea.

k) Laguntza-eskaeraren xede den inbertsioari lotutako azterlanak, gehienez ere diruz lagundu daitezkeen kostuaren % 10eko mugarekin.

l) Aplikatu beharreko legeriaren arabera berreskuratu ezin den BEZa.

Dirulaguntza jasoko duen inbertsioak 6.000 €-koa izan behar du gutxienez.

2.– Hauek ez dira diruz lagunduko:

- a) Mantentze-gastuak eta funtzionamenduko beste edozein gastu, langile-gastuak barne.
- b) Obra-elementuak eta ekipoak birjartzeko edo ordeztuko inbertsioak.
- c) Erakunde onuradunei atxikitako jardueretarako lokalen gastuak, herritarrei zerbitzu zuzena ematen dietenean salbu.
- d) Lursailak eskuratzea.
- e) Makineria.
- f) Hondakinen edukiontziak.
- g) Interes zordunak, finantza-gastuak eta banku-bermearen gastuak.
- h) Berandutze-interesak, errekaruak, hertsapen-isunak, zehapen administratibo eta penalak, eta prozedura judizialen gastuak.
- i) Zuzeneko zergak eta gizarte-aurreikuspeneko edozein araubidera eginiko ekarpenak, laguntzaren onuradunari dagokionez.
- j) Berreskura daitezkeen zeharkako zergak.
- k) Etxebizitzak, ibilgailuak edo etxean erabiltzeko ondasunak.
- l) Ondasunak eta zerbitzuak erostearen ondoriozko faktura edo kontratuetan eginiko deskontuak, eta kontratu publiko edo pribatuetan kontratistak eginiko itzulketak edo ordainketak, aldaketen edo bestelako kausen ondorio direnak.
- m) Finantza-errentamenduko kontratuak. Errentamendu-kontratuekin lotutako kostuak, erosteko aukera ematen dutenak, hala nola, errentatzailearen marjina, interesen birfinantzaketa-kostuak, gastu orokorrak eta aseguru-gastuak.
- n) BEZa ez da diruz lagunduko, non eta berreskurazina ez den, BEZari buruzko legeria nazionalaren arabera.

43. oinarria.– Balorazio-irizpideak.

1.– Proiektuak ebaluatzeko, honako irizpide hauek eta horien balorazioa hartuko dira kontuan:

Irizpideak eta gehieneko puntuazioa	Azpi-irizpideak/oharrak	Deskribapena	Puntuak
Landartartasun-maila (15 puntu)		1M	15
		2M	12
		3M	10
LGP-ra egokitzea (15 puntu)	Proiektuaren tipologia (10 puntu)	Lehentasun handia	10
		Lehentasun ertaina	7
		Lehentasun txikia	5
	Zeharkako ardatzak (5 puntu)	Betetzen du	5
Ez du betetzen		0	
Enplegua sortzea (5 puntu)	Lanaldiaren % 50etik gorako enpleguak	Enplegua sortzen du	5
		Ez du enplegurik sortzen	0
		Proiektu mankomunatua	10
Proiektu mankomunatua (10 puntu)	Proiektua kudeatzeaz eta martxan jartzeaz arduratzen diren hainbat erakunde daude	Proiektu ez mankomunatua	5

2020ko irailaren 3a, osteguna

Irizpideak eta gehieneko puntuazioa	Azpi-irizpideak/oharrak	Deskribapena	Puntuak
Proiektuaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoa eta finantzarioa (15 puntu)	Finantzaketa (funts propioak, beste laguntza batzuk, emandako maileguak eta abar) (12 puntu)	F > % 75	12
		% 60 < F ≤ % 75:	10
		% 30 < F ≤ % 60	8
		% 15 < F ≤ % 30	4
		F ≤ % 15:	0
	Babes korporatiboa (3 puntu)	Organo eskudunaren akordioa aurkeztu du	3
Ez du organo eskudunaren akordioa aurkeztu		0	
Erakunde sustatzailea (20 puntu)	Berme ekonomikoa (3 puntu)	Partida gaitua	3
		Partida gaitu gabea	0
	Proiektuarekiko konpromisoa (17 puntu)	Gauzatua	17
		Esleitua/hasita	12
		Lizitazio-fasean edo, obra-lizitaziorik behar ez dutenen kasuan, kontrataziorako urratsak eman dira.	7
		Gauzatze-proiektua (oniritzia jasota, hala badagokio) edo Memoria baloratua	4
		Oinarritzko proiektua	2
		Besterik	0
Azpiegitura edo zerbitzu berria, edo hobekuntza (15 puntu)		Azpiegitura berria eta/edo lehendik ez zegoen zerbitzua, eta LGE bakoitzak lehenetsitako tipologian kokatuta dauden proiektuetan nahitaezkoak diren hobekuntzak	15
		Gainerako tipologietan nahitaezkoak diren hobekuntzak	10
		Diruz lagundu daitezkeen gainerako hobekuntzak	5
Berrikuntza-maila (5 puntu)	Lurralde historiko bakoitzeko Leader eremuan. Berrikuntza arlo hauetan: prozesua, produktua, merkatua, antolaketa, teknologia, berrikuntza soziala	Proposamena aitzindaria da	5
		Proposamena ez da aitzindaria, baina bai berria	3
		Proposamena ez da aitzindaria, ezta berria ere	0
Eskatutako gehieneko laguntza	Lortutako puntuazio osoa murriztu egingo da «eskatutako gehieneko laguntzaren» arabera, eurotan (AMS)	AMS ≤ 100.000	0
		100.000 < AMS ≤ 150.000	-2
		150.000 < AMS ≤ 200.000	-3

2.– Dirulaguntza jasotzeko gutxienez 50 puntu lortu beharko dira.

44. oinarria.– Laguntzak zenbatekoak diren.

Deialdi honetan proiektu bakoitzeko emandako laguntza 200.000 euro-koa izango da gehienez ere.

Diruz lagundu daitezkeen inbertsioaren % 80ko laguntza eman ahal izango da gehienez.

Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, lortutako puntuazioa hartuko da oinarritzat, taula honi jarraikiz:

Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %
100	80	87	70	74	59	61	49
99	79	86	69	73	58	60	48
98	78	85	68	72	58	59	47
97	78	84	67	71	57	58	46
96	77	83	66	70	56	57	46
95	76	82	66	69	55	56	45
94	75	81	65	68	54	55	44
93	74	80	64	67	54	54	43
92	74	79	63	66	53	53	42
91	73	78	62	65	52	52	42
90	72	77	62	64	51	51	41
89	71	76	61	63	50	50	40
88	70	75	60	62	50		

#### 45. oinarria.– Dirulaguntzaren aurrerakinak.

1.– Aurrerakinak udalerriei, udalerrien elkarteei eta zuzenbide publikoko organismoiei baino ez zaizkie emango. Aurrerakina ezingo da izan emandako laguntzaren % 50etik gorakoa eta, edonola ere, zenbateko hori ezingo da izan inbertsioaren gutzitiko kostuaren % 20tik gorakoa. Haren likidazioa erakunde ordaintzailearen aldeko banku-berme bat eratzearen baldintzapean egongo da. Berme hori aurreratutako zenbatekoaren % 100en baliokidea izango da. Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian gordailutuko dira bermeak.

2.– Berme horren ordez agintaritza publiko batek emandako instrumentu bat erabili ahal izango da, betiere agintaritza horrek konpromisoa hartzen badu bermeak estalitako zenbatekoa ordaintzera, aurreratutako zenbatekoa jasotzeko eskubiderik ez zegoela ezartzen bada.

3.– Bermea ordaintzeko beharra kendu egingo da erakunde ordaintzaile eskudunak ebazten duenean operaziora bideratutako dirulaguntza publikoari dagozkion gastu errealek aurrerakinaren zenbatekoa gainditzen dutela.

## VI. KAPITULUA

### ETXEBIZITZA

#### 46. oinarria.– Xedea.

1.– Laguntza honen xedea da Leader eremuan bizi diren pertsonen eta beste eremu batzuetatik etorritako etorkizuneko herritarrei etxebizitza bat eskuratzen laguntzea.

2.– Honako hauek dira diruz lagundu daitezkeen jarduketak:

a) Etxebizitza berriak: sustapen kolektiboen bidezko urbanizazioa eta eraikuntza (bi etxebizitza edo gehiago), bai eta banako etxebizitza, jabearen lanbide nagusia nekazaritza bada.

b) Etxebizitza birgaitzea, betiere egiturazko obra handia egin behar bada. Ez dira kontuan hartuko bakarrik teilatua aldatzeko proiektuak. Birgaitzeko etxea guztiz eraitsi behar bada, eraikuntza berritatzat hartuko da.

47. oinarria.– Onuradunak.

1.– Etxebizitza berriko laguntzen onuradun izan daitezke honako erakunde hauek:

a) 40. oinarrian aipatutako toki-erakundeak, egoitza soziala Leader eremuan badute.

b) Kooperatibak edo beste forma kolektibo batzuk, egoitza Leader eremuan dutenak eta udalak sustatutakoak, horietako kideak etxebizitzaren azken jabeak badira eta neurri honetan eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

c) Jarduera nagusia nekazaritza duten pertsonak, Leader eremuan erroldatuta daudenak.

2.– Hauek izan daitezke birgaitzeko laguntzen onuradunak:

a) 40. oinarrian aipatutako toki-erakundeak, egoitza soziala Leader eremuan badute.

b) Kooperatibak edo beste forma kolektibo batzuk, egoitza Leader eremuan dutenak eta udalak sustatutakoak, horietako kideak etxebizitzaren azken jabeak badira eta neurri honetan eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

c) Leader eremuan erroldatutako pertsona fisikoak.

48. oinarria.– Onuradun izateko betekizun espezifikoa.

1.– Etxebizitza berriaren zein birgaitzeko laguntzen kasuan, etxebizitzaren azken onuraduna edo bere familia-unitateko inor ezin da izan beste etxebizitza beten % 50en baino gehiagoren jabe eta familia-unitateko kideen ehuneko guztien batura ez da beste etxebizitza baten jabetzaren parekoa izango; diruz lagundutako etxebizitza haren lehen etxebizitza izango da.

2.– Sustapen publikoko etxebizitzaren kasuan, aurreko sustapen publikoetako etxebizitzarik hutsik ez dagoela egiaztatu beharko da, baita laguntza etxebizitzaren erosleari helarazteko konpromisoa ere, azken salmenta-prezioan murrizketa bat aplikatuz.

49. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

1.– Dirulaguntzaren erakunde eskatzaile guztiek, hala publikoek nola pribatuak, 5. oinarriko dokumentazio orokorrak gain, honako hau aurkeztu beharko dute:

a) Proiektua baloratzeko memoriak informazio gehigarri garrantzitsua badu eskaera-inprimakian txertatutakoari dagokionez, VI. eranskineko ereduari jarraikiz erantsi beharko da.

b) Oinarrizko proiektua edo gauzatze-proiektua.

c) Proiektua gauzatzeko edo eskaera egiteko behar diren lizentziak edo baimenak.

d) Sustapen publikoko etxebizitzaren kasuan, eskaera-azterlana. Bertan, aurreko sustapen publikoetako etxebizitzak hutsik badauden ala ez adierazten duen informazioa txertatu beharko da.

e) Pertsona fisikoen kasuan, Leader eremuko errolda-agiria.

f) Hala badagokio, jarduera egingo den lekuan ondasun higiezin erabiltzeko baimena ematen duen tituluaren egiaztagiria.

2.– Gainera, eskatzailea erakunde pribatu bat denean, honako hau aurkeztu beharko du:

a) Izaera juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeen eta ondasun-erkidegoen kasuan, kide guztiek sinatutako dokumentua, non jasotzen baitira talde bakoitzeko kideek beren gain hartutako konpromisoak, bai eta haietako bakoitzak aplikatuko duen dirulaguntzaren zenbatekoa, taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahiko dituen ordezkari edo ahaldunaren izena eta funtsen hartzaile gisa izendatutako kidearen izena –hark banatuko ditu taldeko gainerako kideen artean–.

b) Hala badagokio, nekazaritza-ustiategiaren titularra edo titularkidea emakume nekazaria dela egiaztatzen duen agiria.

c) Kooperatiben edo beste kolektibo pribatu batzuen kasuan, Udalaren agiri bat aurkeztu beharko dute hura aurkeztutako proiektuarekin bat datorrela egiaztatzeko.

d) Etxebizitza berria bada, nekazari nagusiaren egiaztageria (ATP). Baldintza hori dagokion foru-aldundiak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, edo, bestela, baldintza hori justifikatzen duten agiriak aurkeztuta, hau da:

1) Urteko errentaren % 50 gutxienez nekazaritza-jardueratik datorrela egiaztatzea.

2) Nekazaritzako lan-unitateen arabera ustiategiarekin zuzenean lotutako jardueretan urtean emandako lan-denbora lan egindako denbora osoaren erdia edo gehiago dela egiaztatzea.

3) Norberaren konturako Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Berezian edo Norberaren konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotearen egiaztageria, edozein kasutan, haien nekazaritza-jardueraren arabera.

50. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Hauek dira diruz laguntzeko moduko gastuak, etxebizitza berriaren kasuan:

a) Proiektuak eta lanen zuzendaritza, diruz lagun daitezkeen inbertsioaren gaineko gehieneko % 10eko mugarekin.

b) Urbanizazio-lanak burutzea.

c) Birgaitze-lanak burutzea.

d) Lan propioak, diruz lagundutako aurrekontuaren % 20ra arte, nekazarien kasuan.

2.– Hauek dira diruz laguntzeko moduko gastuak, etxebizitzak birgaitzeko:

a) Proiektuak eta lanen zuzendaritza, diruz lagun daitezkeen inbertsioaren gaineko gehieneko % 10eko mugarekin.

b) Urbanizazio-lanak burutzea.

c) Birgaitze-lanak burutzea.

d) Lan propioak, diruz lagundutako aurrekontuaren % 20ra arte, nekazarien eta pertsona fisikoen kasuan.

3.– Inolaz ere ez dira diruz lagunduko higiezinak eta lurrak eskuratzeko operazioak.



## 51. oinarria.– Onuradunen betebeharrak espezifikak.

1.– Sustapen publikoko etxebizitzaren kasuan, laguntza etxebizitzaren erosleari helarazi zaiola egiaztatzen beharko da, azken salmenta-prezioan murrizketa bat aplikatuz.

2.– Etxebizitza berrien nahiz birgaitutako etxebizitzaren kasuan, onuradunak ohiko etxebizitza gisa erabili beharko du eta bertan erroldatuta egon beharko du. Bi egoera horiek egiaztatzen egongo dituzte Landa-garapenaren arloan eskumena duen saileko zuzendaritzaren teknikariek.

## 52. oinarria.– Laguntzak zenbatekoak diren.

1.– Neurri honetan aurreikusitako laguntzak diruz lagundu daitezkeen kostu osoaren % 80ra iritsi daitezke, ekimena erakunde publiko batek aurkezten duenean, eta % 35eraino, erakunde pribatu batek aurkezten duenean. Laguntzak honela banatuko dira:

Landatartasun maila	Etxebizitza birgaitua		Etxebizitza berria	
	Nekazaritza jarduera nagusia duen eta ustiatzeko titularra edo titularkidea den emakumea	Gainerakoa	Nekazaritza jarduera nagusia duen eta ustiatzeko titularra edo titularkidea den emakumea	Jarduera nagusia nekazaritza duen gizona, jarduera nagusia nekazaritza duen baina ustiatzeko titularra edo titularkidea ez den emakumea, kooperatibak eta erakunde publikoak
1M	25.000,00 €	21.739,13 €	20.000,00 €	17.391,30 €
2M	22.500,00 €	19.565,22 €	18.000,00 €	15.652,17 €
3M	20.000,00 €	17.391,30 €	16.000,00 €	13.913,04 €

2.– Proiektu guztiei erantzuteko aurrekonturik ez badago, landatartasun-mailari emango zaio lehentasuna; 1. maila lehenetsiko da 2. mailaren aurretik, eta azken hori 3. mailaren gainetik. Horietako bakoitzaren barruan, etxebizitza berriei baino lehentasun handiagoa emango zaie etxebizitza birgaituei, erakunde pribatuei baino gehiago erakunde publikoei, eta ekimen indibidualei baino gehiago sustapen kolektiboari, hurrenkera horretan. Hala eta guztiz ere, baldintza berberak betetzen dituzten proiektu bat baino gehiago badaude, azken emakume onuradunen ehunekoa izango da kontuan. Azkenik, proiektuak lehenesteko orduan eskatutako laguntzaren zenbatekoa hartuko da kontuan, txikienetik handienara.

Onuradunak kooperatibak edo bestelako erakunde kolektiboak badira, «jarduera nagusia nekazaritza duen emakume titularra edo titularkidea» kategorian sartzeko eta, beraz, laguntza handiagoa eskuratu ahal izateko, hura osatzen duten kideen % 50 gutxienez irizpide horiek betetzen dituzten emakumeak direla justifikatu beharko da.

## 53. artikulua.– Aurrerakinak.

1.– Aurrerakinak udalerriei, udalerrien elkarteei eta zuzenbide publikoko organismoari baino ez zaizkie emango. Aurrerakina ezingo da izan emandako laguntzaren % 50etik gorakoa eta, edonola ere, zenbateko hori ezingo da izan inbertsioaren guttizko kostuaren % 20tik gorakoa. Haren likidazioa erakunde ordaintzailearen aldeko banku-berme bat eratzearen baldintzapean egongo da. Berme hori aurreratutako zenbatekoaren % 100en baliokidea izango da. Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian gordailutuko dira bermeak.

2020ko irailaren 3a, osteguna

2.– Berme horren ordeztu agintaritzaren publiko batek emandako instrumentu bat erabili ahal izango da, betiere agintaritzaren horrek konpromisoa hartzen bada bermeak estalitako zenbatekoa ordaintzera, aurreratutako zenbatekoa jasotzeko eskubiderik ez zegoela ezartzen bada.

3.– Bermea ordaintzeko beharra kendu egingo da erakunde ordaintzaile eskudunak ebazten duenean operazioaren bideratutako dirulaguntza publikoari dagozkion gastu errealek aurrerakinaren zenbatekoa gainditzen dutela.

2020ko irailaren 3a, osteguna

## II. ERANSKINA

## LEADER EREMUKO UDALERRIAK

Udalerria	Landatartasun-maila
Abaltzisketa	2M
Aia	2M
Aiara	2M
Albiztur	3M
Alegia	3M
Alkiza	2M
Alonsotegi	3M
Altzaga	2M
Amezketeta	3M
Amoroto	2M
Añana	1M
Arakaldo	3M
Arama	3M
Aramaio	2M
Arantzazu	3M
Armiñon	3M
Arraia-Maeztu	1M
Arrankudiaga	3M
Arratzu	2M
Arratzua-Ubarrundia	3M
Arrieta	2M
Artea	3M
Artzetales	1M
Artziniega	3M
Asparrena	3M
Ataun	2M
Atxondo	3M
Aulesti	1M
Baliarrain	2M
Barrundia	1M
Bastida	3M
Bedia	3M
Beizama	1M
Belauntza	2M
Berantevilla	2M
Berastegi	3M
Bernedo	1M

2020ko irailaren 3a, osteguna

Udalerria	Landatartasun-maila
Berriatua	3M
Berrobi	3M
Bidania-Goiatz	2M
Elvillar	1M
Burgelu	3M
Busturia	3M
Dima	3M
Donemiliaga	1M
Ea	3M
Elantxobe	2M
Elduain	1M
Ereño	1M
Errezil	1M
Erriberagoitia	1M
Errigoiti	1M
Eskuernaga	2M
Etxebarria	3M
Ezkio-Itsaso	2M
Forua	3M
Fruiz	3M
Gabiria	2M
Gaintza	1M
Galdames	1M
Gamiz-Fika	3M
Garai	3M
Gaubea	1M
Gautegiz Arteaga	3M
Gaztelu	1M
Gizaburuaga	3M
Gordexola	3M
Harana	1M
Hernalde	2M
Ibarrangelu	3M
Ekora	1M
Iruraitz-Gauna	1M
Ispaster	2M
Kanpezu	2M
Karrantza Harana	1M
Kortezubi	2M

2020ko irailaren 3a, osteguna

Udalerria	Landatartasun-maila
Kripan	1M
Kuartango	1M
Lagran	1M
Lanestosa	2M
Lantaron	2M
Lantziego	1M
Lapuebla de Labarca	3M
Larraul	1M
Leaburu	2M
Leintz-Gatzaga	2M
Lemoiz	3M
Leza	1M
Lizartza	2M
Mañaria	2M
Mañueta	1M
Meñaka	3M
Mendaro	3M
Mendata	1M
Mendexa	2M
Moreda Araba	1M
Morga	1M
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz-	1M
Mutiloa	2M
Muxika	3M
Nabarniz	2M
Navaridas	1M
Okondo	2M
Orendain	1M
Orexa	1M
Urizarra	1M
Samaniego	2M
Sopuerta	2M
Sukarrieta	2M
Turtzioz	1M
Ubide	3M
Urkabustaiz	3M
Zaldibia	3M
Zalduondo	1M
Zanbrana	2M

2020ko irailaren 3a, osteguna

Udalerria	Landatartasun-maila
Zeanuri	2M
Zeberio	2M
Zegama	2M
Zerain	2M
Zigoitia	3M
Ziortza-Bolibar	1M
Zuia	3M

2020ko irailaren 3a, osteguna

## III. ERANSKINA

## ENPRESA-PLANA

## 1.– Sustatzailea edo talde sustatzailea:

1.1.– Pertsona sustatzailearen edo sustatzaileen motibazioa, gaitasuna eta esperientzia justifikatzea, negozio-ideia modu egokian garatzeko. Jarduera berriarekin lotutako prestakuntza akademikoa eta prestakuntza gehigarria, eta bizitzako eta laneko esperientzia.

Prestakuntza: Ikastaroaren edo jardueraren izena	Hasiera- data	Ordu kopurua	Egiatapena (bai/ez)	Egiatagiri mota adieraztea eta aurkeztea

Esperientzia: Enpresa/proiektua/jarduera	Hasiera- data	Hilabete kopurua	Egiatapena (bai/ez)	Egiatagiri mota adieraztea eta aurkeztea

## 1.2.– Sustatzaileen funtzioak eta egitekoen banaketa.

1.3.– Ekintzaitza-arloan eskumena duen erakundearen zaintza, hala badagokio, ibilbide ekintzailean zehar.

Erakundearen izena	Hasiera-data	Egiatapena	Egiatagiri mota adieraztea eta aurkeztea

## 2.– Negozio edo proiektuaren ideia:

## 2.1.– Jarduera:

2.1.1.– Negozio-ideia zertan datzan azaltzea eta proiektuaren alderdi garrantzitsuenak nabarmentzea.

2.1.2.– Leader eremuan izango duen eraginaren justifikazioa: jardueraren kokapena. Eremuaren garapen-maila, proiektuari dagokionez. Udalerrri, eskualde edo lurraldearen garapenari nola lagunduko dion berriaz azaltzea.

2.1.3.– Berrikuntza-maila: proiektuaren berrikuntza-maila zein den adierazi eta garatzea (ekoizpen-prozesua, produktua/zerbitzua, antolaketa, merkaturatzea, gizarte-berrikuntza, beste batzuk).

2.1.4.– Eskaintzen duzun produktuari edo zerbitzuari dagokionez, uste duzu berria dela EAEn? EAEn ba al dago produktu edo zerbitzu horiek berak eskaintzen dituen beste enpresarik? Non daude?

2.1.5.– Zeharkako ardatzetan izango duen ekarpena:

- Enpresak burutzen duen edo burutzekoa duen jarduerari loturiko tokiko zerbitzu edota produktuen hornitzaileak, eskualdeko baserri inguruan kokatuta daudenak. Osatu honako taula hau:

Hornitzailearen izena	Kokalekua	Hornitutako produktua/zerbitzua	Horniduraren premiaren deskribapena

- Ingurumena zaintzen laguntzea: zehaztu ingurumenaren inguruko zerbitzu edota produktuak ematen dituzten enpresak diren, edo ingurumen-kalitatea zaintzeko sistemak (adibidez, ISO, 14001) ezarrita dituzten edo horretan ari diren enpresak diren. Hala bada, zehaztu proiektu horrek ingurumena zaintzeko neurriak ezarriak dituen eraikuntza-prozesuan, ekoizpenean edota emango duen zerbitzuan, aplikatzekoa den araudiak betearazten dituenak baino haragokoak.

- Baserri inguruko lekuren batean kokatuta dagoen enpresa horrek lantzen duen edo landuko duen jarduerari lotuta eta eskualde berean edo hortik kanpora jarduten diren bestelako agente/erakundeekin burututako sinergiak eta kolaborazioak. Hornitzaileekiko harremanak ez dira kolaborazioak. Osatu honako taula hau:

Eragileak/erakundeak	Enpresa kolaboratzailearen kokapena eta/edo eragin-eremua	Lankidetzta mota eta deskribapena

2.2.– Merkatu-azterketa:

2.2.1.– Merkatuaren ezaugarri orokorrak: sektorearen, bertako arauen eta joeren ezagutzamaia.

2.2.2 – Bezeroak: bezero potentzialak eta haien ezaugarri nagusiak identifikatu: Zenbateko interesa duen, prezioarekiko zer sentzibilitate duten, non kokatuta dauden eta haiekiko zenbateko mendekotasuna daukan.

2.2.3.- Lehia: lehiakideak identifikatu eta zehaztu zer bereizgarri nagusi dituzten, prezioan, sustapenean, banaketan eta salmenta puntuetan. Produktu/zerbitzuaren abantailak, lehiakideen aldean.

2.2.4.– Hornitzaileak: hornitzaileak zein diren identifikatu, eta adierazi eskaintzen duenak zein dituen bereizgarri nagusiak.

2.3.– Ekoizteko edo zerbitzua emateko prozesua: zerbitzua emateko edo ekoizteko prozesuak identifikatu, hasi materiala biltzetik eta produktu/zerbitzua merkatuan jarri arte. Denak deskribatu.



2.4.– Baliabide materialak: ibilgetuaren inbentarioa (materiala edo materialaz bestekoa, saltzeko ez dena), eta eskaera egin aurreko aktibo zirkulatzailaren elementuak (izakinak).

2.5.– Giza baliabideak: dirulaguntza jasotzeko epean enplegua sortzeko proiektuaren ahalmena justifikatu (halako proiekturik bada): Zenbat proiektu diren, eta nolakoak: lanpostua, zereginak, lanposturako ezinbesteko prestakuntza espezifikoa, lan-jardun tipoa eta kontratuaren iraupena.

Sortuko dituen enpleguak	Lanpostua	Eginkizunak	Lanposturako ezinbesteko prestakuntza espezifikoa	Lanaldi mota (erdia/osoa)	Kontratuaren iraupena

2.6.– Marketin-plana:

2.6.1.– Salmentak: onartutako salmenta-estrategia azaldu.

2.6.2.– Prezioa: enpresaren merkaturatze-politika azaldu, oinarri hauen arabera: zer salmenta-helburu dituen, produktuaren inguruan bezeroek zer dituen eta abar.

2.6.3.– Banaketa: zer banaketa-kanal dituen, eta zenbateko mendekotasuna duten kanala osatzen duten agenteek.

2.6.4.– Komunikazio-plana: kanpaina deskribatu, eta kanpaina burutzeko baliabideak nola esleitu diren.

3.– Kronograma:

3.1.– Ekintzaitzararako laguntzaren kasuan, jarraian adierazten diren mugarriak gehitu behar dira nahitaez.

Mugarria	Data	Erantsi dokumentua
Enpresaren eraketa		
Gizarte Segurantzaren alta		
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta		
Negozioa noiz ireki zen, edo zerbitzua ematen noiz hasi zen		

3.2.– Enpresa-planaren exekuzio-faseak nola planifikatu diren, exekuzioa hasi berriak, erabat burutu arte. Kronograma horrek zehazki planifikatuta eduki behar ditu ardatzak (diruz lagunduko diren ekintzak) zein helburuak.

Enpresa-planaren fasea	Helburuak	Hasiera-data	Amaiera-data

3.3.– Proiektua zenbateraino bete den, eta egoeraren akreditazioa. Markatu dagokion laukitxoak:

Gauzatua	
Hasita	
Beste batzuk	

3.4.– Jarduerarako, bost urteren buruan, ezarrita daukan egoeraren deskribapena.

4.– Enpresaren bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioa:

4.1.– Erantsi Bideragarritasun Ekonomiko eta Finantzarioaren Plana. Bertan, honako hauek txertatuko dira, gutxienez: aurreikusitako inbertsioak, finantzaketa-plana (funts propioak, maileguak eta egiaztatutako bermeak, beste dirulaguntza batzuk...), diruzaintzaren hurrengo bi urtetarako aurreikuspenak (kutzako fluxua) eta emaitzen balantzea eta kontua bost urteren buruan.

4.2.– Emaitza ekonomiko-finantzarioen azterketa eta balorazioa, proiektuaren bideragarritasuna konfirmatuz.

2020ko irailaren 3a, osteguna

## IV. ERANSKINA

## BESTEREN KONTURAKO KONTRATAZIOAREN MEMORIA

Memoriaren edukia:

- Enpresaren jarduera eta eskaintzen dituen zerbitzu eta/edo produktuen ezaugarriak azaltzea.
- Lanpostu bakoitzaren kokalekua.
- Kontratazio berrietarako premien motibazioa.
- Sortu beharreko enplegu kopurua eta egin beharreko lanaren deskribapena. Zehaztu lanpostua, funtzioak, lanaldi mota, kontratuaren iraupena, prestakuntza espezifikoak...

	1. lanpostua	2. lanpostua	3. lanpostua	4. lanpostua
Sortuko dituen lanpostuak				
Sexua				
Luzaroko langabea				
Desgaitua				
Lanpostua				
Eginkizunak				
Lanposturako ezinbesteko prestakuntza espezifikoak				
Sortua (bai/ez)				
Sorrera-data				
Lanaldi mota (erdia/osoa)				
Kontratuaren iraupena				

## V. ERANSKINA

## LEADER HERRIETAKO ZERBITZU PUBLIKOEN AZPIEGITURETAKO ETA BERRIKUNTZAKO INBERTSIOEN MEMORIA

1.– Lurraldea: proiektuaren azaleko deskribapena, haren alderdi garrantzitsuenak eta eragin-eremua nabarmenduz (zehaztu proiektuak beste zein erakunderi eta/edo udalerriri ematen dion zerbitzua).

1.1.– Inbertsioa egingo den lekua.

1.2.– Eskualdeko Landa Garapeneko Planaren egokitze-maila.

1.2.1.– Proiektu mota: zehaztu azpiegitura- edo zerbitzu-proiektuak diren, eta azaldu proiektuak nola lagunduko duen eremuaren garapenean, LGParen esparruan.

1.2.2.– Zeharkako ardatzak:

	Bai/Ez	Argudioak
<b>Ingurumen-jasangarritasuna</b>		
Horien izaera dela-eta, ingurumenaren jasangarritasunean laguntzen duten proiektuak (energia-eraginkortasuna...).		
Eraikuntza-prozesuan, ekoizpenean eta/edo zerbitzuan zehar ingurumena errespetatzeko neurriak erabiliko dituztela justifikatzen duten proiektuak, araudiak zehazten duena baino haratago.		
<b>Lurraldearen kohesioa</b>		
Artikulazio fisikoa eskualdeko alderdien artean: Azpiegitura- eta irisgarritasun-sareak, udalaz gaindiko eremuan.		
Lurralde-ekitate, hau da, eskualdearen osotasunean pertsonaren garapena lortzeko aukera-berdintasuna, bereziki kolektibo babesgabeen kasuan (berdintasuna zerbitzu publikoak, ekipamenduak eta azpiegiturak eskaintzean, kasuan kasuko lurraldearen osotasunean).		
Komunitatea eskualdearekin identifikatzea, bizitzeko proiektu komun batean oinarrituz (jabetzea- eta identitate-sentimendua).		

2.– Erakunde sustatzailea:

2.1.– Proiektua zenbateraino bete den, eta egoeraren akreditazioa.

Gauzatua	
Lizitatua/hasia/esleitua	
Lizitazio-fasean edo lizitatzen ez direnak...	
Gauzatze-proiektua edo memoria baloratua	
Oinarritzko proiektua	
Beste batzuk	

2.2.– Eskaeraren xede-proiektua aurrera eramateko konpromisoa. Azken kasu horretan, Udalaren osoko bilkurako akordioaren edo dagokion erakundearen zuzendaritza-organoaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

2.3.– Berme ekonomikoa: 2019an proiektua gauzatzeko aurrekontu-partidarik badagoen zehaztea, finantzaketa erabilgarria zenbatekoa den egiaztatzeko. Kasu horretan, Udaleko idazkariak edo dagokion erakundeko organo baliokideak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

### 3.– Proiektua:

3.1.– Proiektuaren ideiarekin deskribapena eta xede-taldea. Proiektua gauzatzeko motibazioa eta lortu nahi diren helburuak.

Aurkeztutako proiektua proiektu globalaren fase bat baino ez bada, bete hurrengo taula.

Proiektuaren fasea	Jarduketaren deskribapena	Aurreikusitako hasiera-data	Aurreikusitako amaiera-eguna	Eginda (Bai/Ez)

3.2.– Oinarrizko azpiegitura edo zerbitzuaren kudeaketarekin lotuta sortzea aurreikusten den enplegu zuzena, eta horren ezaugarriak. Lanpostua, funtzioak, lanposturako ezinbesteko prestakuntza espezifikoak, lanaldi mota eta kontratuaren iraupena adierazi beharko dira.

3.3.– Proiektuaren norainokoa (tokikoa, udalekoa, udalaz gaindikoa): zehaztu proiektuak zein erakunderi ematen dion zerbitzua. Zehaztu proiektua gauzatzeko lankidetzak-akordiorik badagoen. Hala badagokio, aurkeztu egiaztatzeko dokumentazioa.

3.4.– Adierazi proiektu berria den edo lehendik dagoen zerbitzu edo azpiegitura bat hobetzeko proiektu bat den. Hobekuntza-jarduketaren kasuan, zehaztu jarduketak horrek nola baldintzatzen duen zerbitzuaren jarraitutasuna.

3.5.– Gauzatze-kronograma zehaztu eta inbertitu beharreko funtsen jatorriak xedatuko dira, honako taula honi jarraituz:

Obrak egiteko fasea	Aurreikusitako hasiera-data	Aurreikusitako amaiera-data

4.– Kudeaketa-plana (nahitaez bete beharko da aurkeztutako proiektuarekin batera, zerbitzu bat kudeatu behar bada):

#### 4.1.– Erakunde kudeatzailea:

4.1.1.– Zerbitzua erakunde eskatzaileak kudeatu behar badu, zehaztu nola kudeatuko den eta horretarako erabiliko diren baliabideak (materialak eta giza baliabideak).

4.1.2.– Kudeaketa hirugarren batek egin behar badu, zehaztu nola egingo den esleipen-prozesua eta erakunde esleipendunak zein baldintza eta ezaugarri nagusi bete beharko dituen.

4.2.– Aurreikusitako jendeketa: xede-publikoaren ezaugarriak eta erabiltzaile kopurua (astean, hilabetean eta urtean).

4.3.– Erabiltzaileek zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzak.

4.4.– Irekitzeko eta ixteko egutegia eta ordutegiak.

4.5.– Diru-sarreraren gutxi gorabeherako bolumena eta zerbitzuaren urteko funtzionamenduarekin lotutako gastuak.

5.– Berrikuntza:

5.1.– Adierazi eta garatu zer den proiektuaren berrikuntza-maila, zerbitzuari, teknologiari, gizarte-berrikuntzari eta abarri dagokienez.

5.2.– EAEko Leader eremuan edo kasuan kasuko lurralde historikoan antzeko proiekturik badago, zehaztu non dauden kokatuta eta zein diren horien arteko aldeak.

## VI. ERANSKINA

## ETXEBIZITZAREN MEMORIA

## 1.– Lurraldea.

## 1.– Etxebizitzaren kokalekua.

## 2.– Erakunde eskatzailea.

## 2.1.– Erakunde eskatzailea kooperatiba bat edo beste erakunde kolektibo pribatu bat bada:

Etxebizitza Kop.	Emakume titularren %	Gizon titularren %

2.2.– Erakunde eskatzailea erakunde publiko bat bada, etxebizitzaren esleipena egin bada, erantsi prozesuaren egiaztagiria eta prozesuaren emaitza. Horrez gain, taula hau bete behar da:

Etxebizitza Kop.	Emakume titularren %	Gizon titularren %

## 3.– Proiektua.

3.1.– Proiektuaren deskribapena: jarduketa mota (eraikuntza berria/etxebizitza birgaitua), etxebizitza kopurua, azalaren koadroa, instalazioak, eta abar.

## 3.2.– Gauzatzeko kronograma.

Obrak egiteko fasea	Aurreikusitako hasiera-data	Aurreikusitako amaiera-data

3.3.– Birgaitzeen kasuan: egiturazko obra handia egiteko beharraren justifikazioa.